

Zertan den Nafarroa

2013
Ekonomia Analisia

- **Europa eta Espainiak** premia dute erreformak burutzeko zabaldutako aukera aprobetxatzekoa, banku batasuna sendotu, batasun ekonomikoan aurrera egin eta hazkunde aurreikuspenak hobetzeko.
- **Nafarroa: desoreka txikiagoek** barne eskaria Espainian baino gutxiago doitzea ahalbidetu dute.
- **Kanpo sektorea, EBko erdiguneko herrialdei oso lotua**, erabakigarria da Nafarroaren berezko bilakaera ezberdina azaltzeko.
- **Nafarroak bere abantailak mantentzeko** hezkuntza sistemaren eraginkortasuna giltzarria da.

Aurkibidea

1. Editoriala	3
2. Kanpo ingurunea	5
3. Nafarroako ekonomia: abantaila eginkizun dauden zenbait doikuntzei aurre egiteko, kanpo sektoreko arriskuekin.....	8
1. Errekoadroa. Nafarroako jarduera ekonomikoari buruzko inkesta 2013ko lehen hiruhilekoan	25
4. Autonomia-erkidegoen hezkuntza-jarduna	27
5. Taulak.....	35

Itxiera data: 2013ko apirilaren 16a

1. Editoriala

Munduko ekonomia hazkundearen gaineko aurreikuspenak baikorrak dira, Europan finantzatentsioen gutxitzearen ondorioz, AEBn zerga igoera automatiko eta orokorra hein batean saihesteko lortutako akordioengatik, eta garatze bidean diren zenbait ekonomiaren jardueraren bizkortzeagatik, Txinakoa bereziki. Ingurumari honi mesede egiten diote hartutako politika ekonomikoko erabakiek, eta mundu-hazkundean pixkanako gorakada ahalbidetzea espero da, 2012ko % 3,2ko hazkundetik, 2013an % 3,6kora eta 2014an % 4,1era. Hala ere, susperraldiak jarraipena izan dezan, politika egokiekin jarraitzea beharrezkoa da, nola AEBn hala eurogunean ere. Azken horretan, Zipreko krisiaren konponbide gorabeheratsuak eragin ziurgabetasunak erakusten du, ezinbestekoa dela banku-batasunerako pausuak finkatzea, ikuskaritza bateratuaren eta banku-krisien kudeaketarako mekanismoen ezarpen eraginkorrenekin.

Espanian ere, zenbait faktorek urte haseratik finantza-tentsioak gutxitzea eta finantziario merkatuen pixkanakako berriraketa ahalbidetu dute, 2012ko lehen erdian ikusitako atzerriko kapitalen irteerari buelta emanez. Lehenik, herri-administrazioak burutzen ari diren zerga-doitzea fruituak ematen hasi da. Bigarrenik, finantza sistemaren birkapitalizazio, saneamendua eta berregituraketan aurrerapen esanguratsuak egin dira. Hirugarrenik, ordainketa balantzaren defizitaren zuzenketa azkartu da, azken hilabeteotan superabita agertzeraino. Azkenik, BPGren 2012ko uzurtzea (% -1,2), BBVA Research-ek esperotakoaren ildotik, urtearen lehen erdian analisten kontsentsuak esperotakoa baino txikiagoa izan da.

Ingurumari horretan, Nafarroako ekonomiak % 1,8ko uzurtzea izan zuen 2012an. Bilakaera hori Espainiakoak baino barne-ekonomiaren atzerakada mugatuagoak eragin du (Nafarroan hedapen aldiko nahiz krisiko desoreka txikiagoek lagunduta), kanpo eskariaren ekarpen negatiboago batek konpentsatuta, Nafarroaren bazkide komertzial nagusi diren Europako erdiguneko herrien motelaldia medio. Epe laburrean, Nafarroako ekonomiak 2013an hondoa jo (% -1,2) eta 2014an suspertzea (% 1,1) espero da. Ildo horretan, BBVAren Jarduera Ekonomikoari buruzko Inkestak erakusten du Nafarroako ekonomiaren uzurtzea indarra galtzen ariko litzatekela eta 2013ko bigarren hiruhilekorako joera hori mantenduko lukela.

Aurrera begira, faktore batzuk badira ekonomian hobekuntza espero izatea babesten dutenak. Lehenik, munduko ekonomiaren hobekuntza eta finantz-tentsioen gutxitzearekin, esportazioen hazkunde eta inbertsio aurreikuspenak hobetzea espero daiteke. Era berean, higiezinaren sektoreko doikuntza amaitzetik hurbil dago eskaintzaren aldetik, eta Nafarroa izan denez saldu gabeko etxeen stock-a krisi garaian gutxitzeko gai izan den erkidego bakarretakoa, horrek adierazten du sektorea hazkunde eta enpleguari ekarpen negatiboak egiten uztekin gertu legokela. Azkenik, zerga-finkatze prozesuak barne-ekonomiari kalte egiten jarraituko diola espero daiteken arren, 2012an defizit helburua bete izanak, hurrengo urteetarako egin beharreko ahalegina txikiagoa izatea dakar, hartutako konpromisuak betetze aldera.

Etorkizunean, Nafarroaren ezaugarri bereziak kontuan hartuta, hots, ekonomiaren irekitasun maila handia eta eduki teknologikoko sektoreen garrantzia kontuan hartuta, erkidego horrek esportazioen dibertsifikazioa handitzea komeni da, bai ikuspegi geografikotik eta bai esportatutako produktuei dagokienez ere. Lehenengoari buruz, egindako aurrerapenek emaitzak eman dituzte, eta Nafarroak proportzioan Espainiak baino esportazio gehiago zuzentzen ditu EAGLES herrialdeetara. Bigarrenengoari buruz, automobilen eta ekipo-ondasunen pisu handiaren ondorioz, salmentak oso prozifikoa dira. Beraz, Nafarroak bere enpresen lehiakortasuna areagotzen jarraitzeko ahalegina egin behar du. Horretarako, funtsezkoa da I+Gren arloko ahaleginari eustea eta ahalegin hori hobetzea, oztopo burokratikoak eta enpresa-kostuak murriztea nahiz lan-merkatuaren eta ondasun eta zerbitzuaren eraginkortasunean aurrera egitea.

Giza kapitalaren atala modu berezitan aipatu behar da. Nafarroa, lehen postuan dago enpresen ahalegin ikertzaileari eta giza kapitalaren mailari dagokienez eta horren mende dago Espainiako gainerako eskualdeetako batez bestekoa baino BPG per capita handiagoa izaten jarraitzea. Aldizkari honek hezkuntza-sistemaren emaitzen konparaziozko azterketa bat jasotzen du eta, beronen arabera, Nafarroako hezkuntza-sistemak emaitza onak lortzen ditu. Hala ere, emaitza horiek ikasleen araberako gastua eta biztanleria helduaren hezkuntza maila kontuan hartuta zuzentzen direnean, Nafarroa batez bestekoaren azpitik gelditzen da. Beraz, giza kapitalean duen abantaila behin-behinekoa izan liteke eta sistemaren eraginkortasuna hobetu egin daitekeela dirudi.

2. Kanpo ingurunea


Agertoki ekonomiko globalaren gaineko ikuspegi baikorra...

Agertoki ekonomiko globalaren aurreikuspenei buruzko pertzepzioa hobetzea eragin zuten, Europan finantza-tentsioak murrizteak, AEBn zerga igoera automatiko eta orokorra saihesteko hartutako erabakiak -partziala-, eta garatze bidean diren zenbait ekonomiaren jardueraren azelerazioak, Txinakoak bereziki. Politika ekonomikoan hartutako erabakiek, 2012ko azken zatian eta 2013ko hasieran abiarazitakoek, sustatu dute ingurune onuragarriago hori; horren guztiaren ondorioz eta mundu-hazkunderaz ari garela, 2012an % 3,2ko gorakada izatea espero da, % 3,6koa 2013an eta % 4,1ekoa 2014an. Hala ere, susperraldiak jarraipena izan dezan, politika egokiak garatu beharko dira, bai AEBn eta baita eurogunean ere. Azken horretan, Zipreko banka krisiaren konponbide prozesu gorabeheratsuak eragin ziurgabetasuna desagertuz joango da baldin eta gertaera horrek, azkenean, banku-batasunerako bidearen finkatzea badakar berarekin.

Dena den, badira zenbait arrisku-faktore, egoera hori beherantz lerra dezaketenak. Hazkunde global txikiagoa gertatzeko arrazoiak honako hauek lirateke: finantza-tentsioak areagotzea eta konfiantza maila txikitzea, Europako agintariak euroa sendotzeko duten konpromisoaren inguruan zalantzak sortzen badira berriro; oraingoaz, zalantza horiek ondo mugatuta daude, bai EBZk joan den uztailan egin zuen iragarpenaren ondorioz, bai inguruko herrialdeek moneta bakarra babesteko hartutako erabakien ondorioz. Tentsioak gertatuz gero, beharrezkoa izango litzateke finantza-babeserako bertzeko erabaki batzuk hartzea, eta, hala gertatuko balitz, euroguneak atzeraldian jarraituko luke 2013. urtean. AEBri dagokionez, arriskutsua litzateke euroguneko bertze krisi baten eraginari epe ertainera zergak finkatzeko edo epe laburrera zorraren puntu gorena handitzeko erabakirik hartu ez izanaren eragina gehitzea. Hala ere, eremu garatuenetan politikak zehazteko eta abiarazteko orduan egindako aurrerapenak nahiz garatze bidean diren herrialdeek hazkunderako erakutsitako erresistentzia ikusita, arrisku hori joan den udazkenean baino txikiagoa da.

1. Grafikoa


Konfiantza adierazlea (PMI)



Iturria: Markit eta BBVA Research

2. Grafikoa

Munduko BPGren hazkundera



Iturria: BBVA Research

EBZk hartutako erabakiez eta banku-batasunean egindako aurrerapenez gain, Espainian, bertze hainbat faktore lagungarri izan dira finantza-merkatuetan tentsioak murrizteko eta finantza-merkatuak berriro irekitzen hasteko, poliki bada ere eta irekitze hori erabatekoa izan ez den arren; faktore horiei esker, 2012ko lehen urte erdian gertatutako atzerriko kapitalaren irteerak atzera egin du. Faktore horien artean, lehenik, administrazio publikoak egiten ari diren zerga-doikuntza aipatu behar da, emaitzak ematen hasi dena jada, 2012ko itxierako defizit publikoari buruzko aurrerapen-datuetan ikus daitekeen moduan: BPGren % 6,7 (finantza-sektoreari emandako

laguntzak kontuan izan gabe). Hori guztia diru-sarrera publikoak handituz eta gastua murriztuz lortu da, atzeraldi giroak jarraitu arren. Bigarrenik, aurrerapen nabarmena gertatu dela erran behar da, Espainiako finantza-sistemaren birkapitalizazioa, saneamendua eta berregituraketa gardentasunez eta handinahiz sustatu baita. Hirugarrenik, ordainketa-balantzaren defizitaren zuzenketa azkartu da, eta azkeneko hiru hilabeteetan superabita erakutsi du. Azkenik, BPGk 2012an izandako jaitziera (% -1,4koa), BBVA Research-en aurreikusi modukoa izan da, urtearen lehen erdian merkatu kontsentsuak (heine handian analista atzeritarrek) espero zuena baino txikiagoa, orain, Espainiak atzeraldi, defizit publikoaren handitze eta zerga-murrizketa gehiago behar izateak sortutako sorgin-gurpilean erortzeko probabilitate txikiagoa duela baitio kontsentsu horrek.

Espainia: behea joko du 2013an, eta 2014an suspertzen hasiko da

Aurreikuspenen arabera, ekonomiak behea joko du 2013. urtean, eta BPGk % -1,1eko beheraldia izango du. Sektore pribatuko doikuntza-prozesuek aurrera jarraituko dutela eta zergak finkatzeko prozesu handinahi horretan neurri gehiago abiaraziko direla kontuan hartuta, barne-eskariak aurten ere atzeraldia izango duela ziurta dezakegu. Hala ere, bada nahiko arrazoi pentsatzeko 2014. urtean ekonomiak jardueraren hazkunde neurritsua izango duela, % 1,1ekoa (ikus 1. koadroa). Esportazioek sendotasun handia erakutsi dute, eta, Europako eskariak izandako beherakadaren ondoren, esportazioen helmugak dibertsifikatu egin dira, lehiakortasunari eutsiz. Munduko ekonomiak susperraldiari eusten badio eta finantza-tentsioek txikitzen jarraitzen badute, inbertsio-aurreikuspenak hobetu daitezke. Era berean, higiezinaren sektorearen doikuntza amaitzen ari da, eskaintzari dagokionez. Metatutako desoreken absortzioa nahiko motela izango den arren, sektoreak ez du eragin negatiborik edukiko hurrengo urteetako hazkundean. Azkenik, zergak finkatzeko ahalegina aurreko bi urteetako baino txikiagoa izango da 2014. urtean, doikuntza-neurriei dagokienez.

Nolanahi ere, agertoki horretan ez dira arriskuak desagertu. Finantza-tentsioak murriztu egin diren arren eta EBZren laguntza baldintzatua eskatzeko beharrik izan ez den arren, ekonomiak hainbat arriskuri egin beharko die aurre, kanpoan nahiz barnean. Hortaz, beharrezkoa da une honetan ireki den leihoa baliatzea, ekimenez jokatzeko eta Europan eta Espainian aurrerapen gehiago bultzatzeko, hala, erreformak, konfiantzak eta hazkundeak elkar elikatuko duten sorgin-gurpila sendotu ahal izateko. Europan, nahitaezkoak izango dira gorago aipatutako banku-batasunerako aurrerapenak. Espainian, 2013ko defizitaren helburuan malgutasunez jokatzeko den edo ez albora utzita, herri-administrazioek hileroko ebaluatu beharko dituzte zergak finkatzeko aurrerapenak, bai atzeraldia nagusi den ingurunean diru-sarreraren gaineko ziurgabetasuna sortzearen ondorioz, bai gastu publikoaren kontrol eraginkorra egiteko. Zergak finkatzeaz gain, bertze hainbat erreforma egin behar dira oraindik ekonomia espainiarraren hainbat esparrutan. Bertzeak bertze, merkatuaren batasuna lortzeko, zerbitzuen sektorea liberalizatzeke, enpresen finantziak hobe zezake, giza kapitala eta kapital teknologikoa handitzeko, herri-administrazioen eraginkortasuna areagotzeko, pentsio-sistemaren iraunkortasuna bermatzeko edo mendetasun energetikoa murrizteko hartuko diren erabakiak hagitz garrantzitsuak izango dira. Lan-merkatuaren egoera larria ikusita, beharrezkoa da ziurtatzea azkeneko lan-erreforman zehaztutako tresna guztiak eraginkorrak direla, eta baita behin-behinekotasuna murrizteko, produktibitatea eta enplegarritasuna handitzeko, enpresen eta sektoreen arteko enplegu berresleipena azkartzeko eta enpleguaren arloko politika aktiboen eta pasiboen eraginkortasuna hobetzeko neurri osagarriak hartzea ere.

1. Koadroa

Espainia: aurreikuspen makroekonomikoak

(% u/u, kontraktorik adierazi ezean)	1H12	2H12	3H12	4H12(e)	2011	2012	2013(a)	2014(a)
Azken kontsumoaren gastua (AKG) nazioan	-2,0	-2,3	-2,6	-3,3	-0,8	-2,5	-4,0	-0,7
AKG, pribatua	-1,3	-2,2	-2,1	-3,0	-1,0	-2,1	-2,8	-0,3
AKG, familiak	-1,3	-2,2	-2,1	-3,0	-0,8	-2,2	-2,8	-0,3
AKG, herri-administrazioak	-3,8	-2,8	-4,0	-4,1	-0,5	-3,7	-7,2	-1,8
Kapital-eraketa gordina	-7,1	-8,8	-9,2	-9,7	-5,5	-8,7	-6,8	2,6
Kapital finkoaren eraketa gordina	-7,4	-9,2	-9,7	-10,3	-5,3	-9,1	-6,8	2,6
Aktibo finko materialak	-8,1	-10,0	-10,7	-11,0	-5,8	-10,0	-7,4	2,4
Ekipoa, makineria eta landatutako aktiboak	-5,1	-6,4	-7,0	-7,9	2,3	-6,6	-1,5	6,4
Ekipoa eta makineria	-5,2	-6,5	-7,0	-7,9	2,4	-6,7	-1,7	6,4
Eraikuntza	-9,5	-11,6	-12,4	-12,3	-9,0	-11,5	-10,2	0,3
Etxebizitza	-6,8	-7,9	-8,7	-8,7	-6,7	-8,0	-8,3	2,1
Beste eraikin eta eraikuntza batzuk	-11,9	-14,9	-15,8	-15,7	-11,0	-14,6	-12,2	-1,6
Aktibo finko immaterialak	3,4	2,7	4,8	-0,5	3,1	2,6	0,4	5,4
Izakinen bariazioa (*)	0,0	0,0	0,1	0,1	-0,1	0,1	0,0	0,0
Barne-eskaria (*)	-3,1	-3,8	-4,0	-4,7	-1,9	-3,9	-4,6	0,0
Esportazioak	2,1	2,7	4,2	3,2	7,6	3,1	6,3	8,2
Inportazioak	-5,9	-5,2	-3,4	-5,4	-0,9	-5,0	-4,4	5,8
Kanpo-saldoa (*)	2,4	2,4	2,4	2,8	2,3	2,5	3,4	1,1
BPG mp	-0,7	-1,4	-1,6	-1,9	0,4	-1,4	-1,1	1,1
Pro-memoria								
BPG, etxebizitza arloko inbertsiorik gabe	-0,3	-0,9	-1,2	-1,5	1,0	-1,0	-0,7	1,0
BPG, eraikuntza gabe	0,7	0,3	0,0	-0,4	2,1	0,2	0,1	1,2
Enplegua guztira (BAI)	-4,0	-4,8	-4,6	-4,8	-1,9	-4,5	-3,8	-0,2
Langabezia-tasa (bizt. akt. %)	24,4	24,6	25,0	26,0	21,6	25,0	26,8	26,1
Enplegua guztira (l.o.b.)	-3,7	-4,7	-4,6	-4,7	-1,7	-4,4	-3,4	-0,4

 (*) Hazkundeari ekarpenak; (e): estimazioa; (a): aurreikuspena
Iturria: BBVA Research, INEn oinarrituta

3. Nafarroako ekonomia: abantaila eginkizun dauden zenbait doikuntzei aurre egiteko, kanpo sektoreko arriskuekin


2010. eta 2011. urteetan, Nafarroako ekonomiaren portaera erlatiboa Espainiako ekonomiarekiko ona izan zela erran daiteke, hazkunde positiboa izan baitzuen bi urteetan eta BPGren hazkunderan puntu bateko alde bereizgarria; 2012an, aldiz, Nafarroako BPGk % 1,8ko uzkurdua izan zuen, hau da, Espainia osoan baino lau hamarren handiagoa. 2013 eta 2014. urteetarako, aldizkariaren atal honetan aztertzen denez, Nafarroako ekonomiaren BPGren bilakaera (% -1,2koa eta % 1,1ekoa, hurrenez hurren) Espainiakoak oro har izango duenaren antzekoa izango dela aurreikusten du BBVA Research-ek.

Nafarroako kasuak berezitasun garrantzitsuak islatzen ditu autonomia-erkidegoen artean, izan ere, Nafarroak duen kanporako irekitze maila handiari esker, hazkunderan aldeko bereizgarri bat lortu du krisiaren ondorengo lehen urteetan. Hala ere, modu berean, Europako ekonomiak aurreko urtearen azken zatian izan duen berrerorikoa indar handiagoz nabaritu da foru-erkidegoan, eta, esportazioek behera egiteaz gain, aurreko bereizgarri positiboa negatibo bihurtu da 2012an.

Hala ere, Nafarroak abantaila du krisitik irteteko, bai oinarritzoei dagokienez, bai krisiaren aurreko hedapen-aldian eta krisian sortutako desorekei dagokienez, nolako posizio erlatibo duen kontuan hartuta. Lehenik, estatuko BPG per capita handienetakoa du Nafarroak, langabezia-tasa txikienetakoa eta aurrezki-tasa altua lagun. Hiru faktoreek batuz gero, Nafarroako familiak errenta talka negatibo bat jasateko gaitasun handiena dutenen artean daude, eta, horri esker, aurreikusitako BPGren beheraldia ez da elikatuko ondoren gerta daitezkeen kontsumoaren edo inbertsio pribatuaren murrizketekin.


Bigarrenik, higiezinaren boomak ondorio txikiagoak izan zituen erkidegoan, bi eragin hauek batu zirelako: batetik, lan egiteko adindun biztanleriaren hazkunde erlatibo txikiagoa, eta, bertzetik, sektore turistikoaren pisu txikia; horrek etxebizitzaren eskaria mugatu zuen. Hori dela eta, etxebizitza eskuratzera zuzendutako ahalegina (ikusi 3. grafikoa) eta etxebizitzaren gehiegizko eskaintza autonomia-erkidego gehienetan baino gutxiago handitu zen. Eskariaren jokaera motelago horren ordaina familien eta enpresen zorpetze maila txikiagoa izan da. Horrez gain, errenta maila handiagoa denez, ordaintzeko gaitasuna ere handiagoa da eta, finantza-karga, txikiagoa izanik, kreditu-bolumenaren zuzenketa azkarrago bideratu du (ikusi 4. grafikoa).

3. Grafikoa
Etxebizitza bat soldatarekin ordaintzeko beharrezko urteak



Iturria: Sustapen Ministerioa

4. Grafikoa
Kreditua beste sektore egoiliar batzuei (BPGren gaineko %)



Iturria: BdE, INE eta BBVA Research

Azkenik, Nafarroako egoera batez bestekoa baino hobea da hazkundera eta kontrako girara egokitzeko gaitasuna errazten duten egiturazko oinarriko adierazleei dagokienez, hala nola giza kapitalaren mailari, enpresa jardunerako askatasunari (bertze autonomia-erkidego batzuetan mugatuago dago), ikerketarako ahaleginari edo azpiegituren hornidurari dagokienez.

Nafarroako ekonomiari arazo handiagoak sortzen dizkieten alderdiei dagokienez, bi aipa daitezke. Alde batetik, esportazioen dibertsifikazio falta da nagusi, bereziki esportatutako produktuen ugaritasunari dagokionez, baina baita esportazio horien helmuga geografikoei dagokienez ere. Horren ondorioz, zikloa industria eta herrialde gutxi batzuen jarduerari lotzen zaio soilik, eta ezaugarri hori arriskutsua da ekonomiarentzat, 2012. urtean ikusi ahal izan denez.

Beste alde batetik, zerga-politikaren arloan, foru-sistemak eta kontuen kudeaketak Nafarroari abantaila eman badiote ere, erkidegoko zorraren hazkunde abiadurak zer pentsa ematen du. Zehazki, Nafarroako zorra erkidegoko BPGren % 15,4koa izan zen (aldiz, autonomia-erkidegoen batez bestekoa % 17,6koa), baina gainerako autonomia-erkidegoetan zorra 2008ko lehen hiruhilekotik hirukoiztu egin den bitartean, Nafarroan 4,3 aldiz handitu da. Goranzko joera hori zuzentzeko bidean da, aurtun defizitaren helburua bete delako. Hala ere, Nafarroako Gobernuak behin-behineko hainbat neurri aldatu behar ditu, eta erkidegoaren defizitaren behin betiko murriztea bermatuko duten neurriak hartu.

Laburbiltzeko, eskualdeko zor publikoaren hazkunderetik eta kanpo-sektorearen espezializazioaren ondoriozko arriskuak izan arren, Nafarroak abantaila du egiteke dauden doitzeei aurre egiteko eta hazkunde positiboa berreskuratzeko (ikusi 2. koadroa).

2. Koadroa

Erkidego Autonomokako arrisku adierazleen mapa

	MAD	EUS	NAF	ARA	KNT	GLE	ERR	AST	KAT	KAN	GAL	VAL	BAL	MUR	GMA	EXT	AND
Epe laburreko adierazle sintetikoa	1	0	1	1	1	2	2	2	2	2	1	3	2	2	2	2	2
Egoitza-Inbertsioa (saldu gabeko stocka / etxebizitza-parkea)	1	1	0	2	0	1	3	2	2	2	1	3	2	2	2	0	2
Etxebizitzaren eskuragarritasuna (ahalegin gordina)	2	3	1	1	2	1	1	2	2	2	1	2	2	1	1	1	2
Kanpo sektorearen dibertsifikazioa:	1	2	3	2	1	2	1	1	2	1	2	2	1	1	1	1	1
Sektore pribatuaren gain-zorpetzea	3	1	2	2	2	1	2	1	3	3	1	3	3	3	2	1	3
Langabezia-tasa	3	2	2	2	2	3	2	3	3	3	3	3	3	3	3	3	3
Zor autonomikoa (BPGren %)	2	2	3	3	3	3	3	3	3	2	3	3	3	3	3	3	3
BPG per capita erlatiboa	0	0	1	1	2	2	1	2	1	2	2	2	2	2	2	3	2
Irekitasun komertziala (ondasunak eta turismoa)	2	1	2	2	2	2	2	2	0	1	1	2	1	0	2	3	2
Familien aurrezki-tasa	2	0	0	1	1	2	1	2	2	3	2	2	3	2	1	1	2
Askatasun ekonomikoaren indizea	0	1	1	2	2	1	1	2	2	1	2	2	1	2	2	3	3
Giza kapitala	0	0	1	1	1	2	2	1	2	2	2	2	2	2	3	3	2
I+G / BPG	0	0	0	2	2	2	2	2	1	2	2	2	3	2	2	2	2
Azpiegiturak / LAP	2	1	1	1	1	1	2	1	2	2	2	2	3	3	2	2	3
Adierazle globala	0,4	0,4	0,6	1,1	1,1	1,1	1,3	1,3	1,3	1,7	1,9	1,9	2,3	2,3	2,3	2,4	2,4

Iturria: BBVA Research

Nafarroako ekonomiaren oinarrizkoek, barne eskariaren doitze txikiagoa ahalbidetzen dute


Nafarroako ekonomiaren egiturazko adierazleek bertze erkidego batzuek baino egoera hobea duela erakusten badute ere, foru erkidegoak bilakaera negatiboagoa izan zuen 2012an. Zehazki, INEren arabera, Nafarroako BPGren beheraldia % -1,8koa izan zen 2012an (Espainian % -1,4koa); Nafarroako Estatistika Institutuaren (NEI) arabera, berriz, uzkurdura % -1,4koa izan zen¹.

BPGk eskariaren aldetik izan duen deskonposizioaren azterketak (NEIk argitaratu datuetan oinarrituta egindakoa²) bilakaera horren arrazoietakoa batzuk argitzen ditu. Lehenik, kontsumo pribatua % 1,6 murriztu zen 2012an, eta, horren ondorioz, BPG 9 hamarren murriztu zen (ikusi 5. grafikoa); Espainiakoa (% -2,1) baino dinamika positiboagoa adierazten du horrek. Bertze adierazle batzuek ere horixe berresten dute, hala nola xehekako salmenten indizeak: % 5eko beheraldia izan zuen, Espainian (% 6,9) baino txikiagoa, 2011. urtean ere gertatu bezala (% -4,3 Nafarroan, eta % -5,7 Espainian).

Nafarroako familien kontsumoaren beherakada hori enpleguaren suntsitze-prozesu batek baldintzatu zuen (ikusi aurrerago), eta, horrez gain, ziurgabetasunaren handitzeak, konfiantza-galerak (ikusi 7. grafikoa), soldaten mugatzeak eta, nagusiki, zerga-doitzearen azkartzeak. Zehazki, iazko hirugarren hiruilekoan gertatutako BEZaren (Balio Erantsiaren gaineko Zerga) igoerak urteko batez besteko kontsumoaren murrizketa azaltzen du hein handian, baina aldakortasun handi batean ere txertatu zuen, izan ere, behin-behineko aldaketa eragin zuen kontsumitzaileen jokabidean, gastuak aurreratu baitzituzten, zerga-hazkundera saihesteko. Hala, 2012ko hirugarren hiruilekoan zifra ez zen horren negatiboa izan, baina 2012ko laugarren hiruilekoan beheraldi indartsua jasan zuen (ikusi 6. grafikoa). Dena den, badirudi 2013ko lehen hilabeteetan xehekako salmentak egonkortzen ari direla nolabait, gainerako autonomia-erkidegoetan ez bezala.

5. Grafikoa


Nafarroako BPG eta hazkundeari egindako erkarpenak eskariaren aldetik (% eta p.p.)



Iturria: BBVA Research, NEIn oinarrituta

6. Grafikoa

Xehekako merkataritza indizea (h/h, UEEZ)




Iturria: BBVA Research, INEn oinarrituta

1: INEren arabera, Nafarroako BPGren hazkundera 2011n % 1,4koa izan zen, eta % 1,5ekoa NEIren arabera.

2: INEK urteko informazioa ematen du soilik, eta eskaintzaren arloa sektoreka deskonposatzen du. NEIk, bere aldetik, Hiruhilekoko Kontabilitatearen ziklo-joera datuak argitaratzen ditu, eta horrek zaildu egiten du hiruhileko jakin bateko ekonomiaren bilakaera aztertzea.

7. Grafikoa

Kontsumitzailearen konfiantza-indizea




Iturria: NEI

Bestalde, zergak finkatzeko ahaleginaren ondorioz, kontsumo publikoa uzkurto egin zen berriro, baina, oraingo honetan, doitzea sektore pribatuan baino handiagoa izan zen. Bertze autonomia-erkidego batzuetan beheratze hori enplegu publikoaren murrizketaren ondorio izan da, baina Nafarroaren kasuan ez, izan ere, enplegu publikoak ez zuen ia inolako aldaketarik jasan 2011 eta 2012ko azken hiruhilekoen eta 2012ko azken hiruhilekoa artean (ikusi 21. grafikoa, lan-merkatuari dagokion atala). Dena den, 2011. urtean termino errealetan % 2,2 jaitsi ondoren, 2012an % 3,8 murriztu zen kontsumo publikoa, eta, horren ondorioz, hazkundearen gaineko ekarpen negatiboa bikoiztu egin zen, BPGren 6 hamarrenera iritsiz. Ildo beretik, eraikuntzaren sektoreko inbertsioak zuen 2012an, zergak finkatzeko prozesuari lotuta hori ere. Izan ere, lizitazio ofiziala % 71 murriztu zen, obra publikoen beheraldiaren (% -72) nahiz lizitatutako eraikuntzalanen beheraldiaren (% -66) ondorioz. Kopuru horiek kontuan izanda, lizitazio ofizialak % 87ko murrizketa izan du jada 2006an (hedapenaren maila gorena) eta 2009an (E Plana) izandako kopuruekin alderatuta.

Kapital Finkoaren Eraketa Gordinak, oro har, % 3,4ko beheraldia izan zuen 2012an (% -1,9koa 2011n). Esportazioen beheraldiaren ondorioz, ekipo-ondasunetako inbertsioak % 3ko uzkurdura jasan zuen, 2011. urteko geldialdiaren ondoren. Konfiantza Industrialaren jeitsierak ere eragin zuen uzkurtze horretan (ikusi 8. grafikoa), eta baita finantza-tentsioek ere. Baina baliteke urte amaieran bilakaera hori zuzentzen hasi izana, esportazioen beheraldia eten ostean. Nafarroako Estatistika Institutuak (NEI) egindako Inbertsioa Eskariari buruzko Inkestako datuen arabera, 2012ko laugarren hiruhilekoan handitu egin zen foru-erkidegoan inbertitzen duten enpresen ehunekoa, bai industrian eta baita zerbitzuetan ere; horrez gain, aldaketa hori ETEek inbertitzeko egindako ahalegin handiagoa ondorio dela ere adierazten dute datu datuok (ikusi 9. eta 10. grafikoa). Aitzitik, eraikuntzaren sektoreko inbertsioak hagitz ttipia izaten jarraitzen du, eta hori bat dator sektorea jasaten ari den doitze-prozesuarekin.

8. Grafikoa


Inbertsioa ekipo-ondasunetan eta industria-giroa



Iturria: BBVA Research, NEIn eta MICYTen oinarrituta

9. Grafikoa


Nafarroan inbertitzen duten enpresen ehunekoa, tamainaren arabera



Iturria: NEI

10. Grafikoa


Nafarroan inbertitzen duten enpresen ehunekoa, sektoreka



Iturria: NEI

11. Grafikoa

Lizitazio ofiziala Nafarroan (12 hilabeteko datu pilatuak, milaka €)



Iturria: NEI


Jardueraren behaldiak etxebizitza arloko inbertsio doitzea azkartu du

Azken bi urteetan, Nafarroan etxebizitzaren eskaria tokiko BPGk Espainiakoaren gainerako erkiergoekiko izandako bilakaera bereizgarriak zehaztu du. Zehazki, 2011. urtean, foru-erkidegoak hazkunde handiagoa izan zuenean, etxebizitzaren salmentaren behaldia Espainiako baino askoz ere txikiagoa izan zen (% 9koa, Espainiako % 30aren aurrean). Hala ere, prozesu hori alderantzikatu egin zen 2012an, eta, BPGren behaldi handiagoen ondorioz, salmenten jeitsiera % 19koa izan zen; horren aurrean, Espainiako eskualde gehienetan suspertze arina gertatu zen. Bi kasuetan, etxebizitza erosteagatiko zerga-kenkaria desagertzeak (Nafarroaren kasuan murriztea) nahiz 2013an ezarri den BEZaren igoerak positiboki eragin dute eskariaren gainean. Sustapen Ministerioaren transakzio-datueta oinarritutako lehen hurbilketa baten arabera, 2012ko salmenten gainean zerga-aldaketak izandako eraginak salmenten % 30 inguruko igoera eragin zuen, hau da, 1.000 eragiketa ingurukoa, batez ere urteko azken hiruhilekoan (ikusi 12. grafikoa).

Bertze alde batetik, eskaintzak doitzen jarraitu zuen urteko % 34ko erritmoan, hiruhilekako hazkunde tasen aldaketa handiak tartekatuz (ikusi 13. grafikoa), jarduera maila minimoaren ondorioz, 2013ko lehen datuetan ere baieztatu dena. Izan ere, jarduera maila minimoa izaki, beronen aldaketa txikiak hazkunde tasen aldaketa handiak eragiten dituzte.

12. Grafikoa


Nafarroa: zerga-aldaketak etxebizitzaren transakzioetan izandako eragina



Iturria: BBVA Research, Sustapen Ministerioan oinarrituta

13. Grafikoa

Nafarroa: etxebizitza berriak eraikitzeko baimenak (CVEC-ren datuak)



Iturria: BBVA Research, Sustapen Ministerioan oinarrituta

Aurreko bi faktoreen ondorioz, Nafarroako gain-erakundearen bolumena murriztu egin zen berriro 2012an -stock osoarekiko bi hamarren-, eskaintza doitzearen ondorioz batez ere. Beraz, saldo gabeko etxebizitzaren bolumena etxebizitza-parkearen % 1,6 ingurukoa da, eta ehuneko hori hagitz hurbil dago merkatuaren funtzionamendua bermatzen duen stock frikzionaletik.

Ondorioz, 2012. urtean, barne eskari pribatuaren nahiz publikoaren beherazko joera azkartu egin zen. Nazioarteko finantza-merkatuetako tentsioen areagotzea, Nafarroaren merkatal-bazkide nagusien hazkunde moteltzea, enplegu suntsiketa eta familien errenta erabilgarriaren atzerakada, zergak finkatzeko prozesua areagotzearekin batera, izan ziren jokaera horren arrazoi nagusiak.

EBren erdigunera zuzendu salmentek oztopatu egin dute 2012a, baina garatze bidean diren herrialdeetara esportatutakoaren ekarpen hazkorra ikusten da

Kanpo sektorera, Nafarroako ekonomiak duen irekitasuna Espainiakoa baino handiagoa izan da eta da gaur egun ere, eta horixe da Nafarroako ekonomiaren bereizgarri mesedegarrietako bat, barne-merkatuak eta Espainiako gainerako lurraldeek dituzten zailtasunak kontuan hartuta.

Horrez gain, azken urteetan Nafarroak ahalegin handia egin du esportazioen dibertsifikazio geografikoa lortzeko. Zehazki, Nafarroak EAGLES³ herrialdeetara (hurrengo urteetan munduko ekonomiaren hazkundeari ekarpen handiena egingo dioten herrialdeak) zuzendutako esportazioen ehunekoak, Espainiako gainerako lurraldeetakoak baino nabarmen apalagoa izatetik, horien gaintik ezartzera igaro da (ikusi 14. grafikoa); beraz, printzipioz, Nafarroako ekonomia ongi kokatua dago krisia gainditzeko, dibertsifikazio-prozesuarekin aurrerajarratzeko gai bada bederen.


3: EAGLES: Emerging and Growth-Leading Economies, Garatze Bidean eta Hazkunde liderrak diren Ekonomiak: Brasil, Txina, Egipto, India, Indonesia, Hego Korea, Mexiko, Errusia, Taiwan eta Turkia.

Hala, bada, 2012. urtean esportazioek zuzenketa gogorra jasan zuten, eta horrek ekonomia honen bilakaera negatiboa zehaztu zuen urte horretan. Termino errealean, ondasunen esportazioek % 15,1 egin zuten behera⁴ (% -15,5 termino nominaletan, Kanpo Merkataritzako Estatu Idazkaritzaren estatistiken arabera), eta, Espainiaren kasuan, igoera horiek % 3,4koak eta % 3,7koak izan ziren, hurrenez hurren (ikusi 15. grafikoa). Jokaera horren atzean, alde batetik, Europako merkatuek Nafarroako esportazioetan duten kontzentrazio handia dago, eta, bertetik, automobilen eta ekipo-ondasunen esportazioen pisu handia (ikusi 16. grafikoa). Zehazki, helmugak dibertsifikatzeko ahaleginak ahalegin, Nafarroako sei bazkide komertzial nagusiek (Frantzia, Alemania, Italia, Erresuma Batua, Portugal eta Herbehereak) foru-erkidegoko ondasunen esportazioen % 60 inguru hartzen dute oraindik, Espainiakoetan baino 10 p.p. gehiago. Aurrekoak, beraz, hazkunde txikiagoa duten eta, ziurrenik, izango duten ekonomiekiko esportazio handiagoa dakar.

Bertze alde batetik, sektoreen ikuspegitik, Nafarroako esportazioak ez dira dibertsifikatu krisia hasi zenetik. Alderantziz, handitu egin da automobil esportazioetan duen kontzentrazioa eta, horrez gain, Nafarroak atzerrira esportatzen zituen ekipo-ondasunen pisua gutxitu egin da esportazioen artean (ikusi 16. grafikoa). Hala, automobilen salmentak Nafarroak esportatutako ondasun guztien % 47 ingurura iritsi ziren 2012an (Espainian baino 21 p.p. gehiago), eta ekipo-ondasunen esportazioak % 25ekoak izan ziren (Espainian baino 5 p.p. gehiago). Izan ere, automobilgintzak sektoreak 2010. eta 2011. urteetan Nafarroak egindako esportazio hazkundearen erdia justifikatzen du berak bakarrik, eta baita 2012ko beheraldiaren heren bat baino gehiago ere (ikusi 17. grafikoa).

14. Grafikoa


Nafarroak eta Espainiak Eagles herrialdeetara zuzendutako esportazioen %, eta Nafarroaren kuota Espainiako esportazioetan



Iturria: BBVA Research, Datacomex-en oinarrituta

15. Grafikoa

Esportazioak: h/h, %, UEEZ, errealak



Iturria: BBVA Research, Datacomex-en oinarrituta

4: BBVA Research-ek eskualdeetako esportazioen prezioen indizeak eraikitzen ditu, eta, horretarako, sektoreko unitate-balioen indizeak hartzen ditu kontuan nazio mailako merkaturako, eta baita eskualde bakoitzeko esportazioen sektore-banaketa ere. Prezioen indize horiek Merkataritzako Estatu Idazkaritzak argitaratutako ondasunen esportazioak deflatatzeko erabiltzen dira.

16. Grafikoa


Nafarroako egitura esportatzailea, 2008 vs 2012 (esportazio guztien gaineko %)



Iturria: BBVA Research, Datacomex-en oinarrituta

17. Grafikoa

Nafarroa: sektoreen ekarpena (p.p.) ondasunen esportazio nominalen hazkunderari (% u/u)




Iturria: BBVA Research, Datacomex-en oinarrituta

Gaur egungo egoeran ekonomiaren irekitasuna faktore positiboa den arren, esportazioek Europako erdigunearrekiko duten mendekotasun handiaren ondorioz, Nafarroak ez du kanpoko sektorearen babes handiagoa jaso krisialdia bere osotasunean aztertuta. Hala, 2010. eta 2011. urteetan esportazioek hazkunde handiak izan zituzten arren, 2009ko eta 2012ko beheraldiek bilakaera positibo hori orekatu zuten. Horregatik, Nafarroako esportazioak krisiaren aurreko maila berean daude gaur egun, Espainiako ekonomian bilakaera onena erakutsi duen eskariaren osagaia hori den arren (ikusi 18. grafikoa). Horrez gain, Nafarroako kanpo-salmentetan zerbitzuek pisu txikiagoa dute, bereziki turismoak (sektore horren jokaera positiboa izaten ari da Espainiako ekonomian azken urteetan), eta, horren ondorioz, ondasunen eta zerbitzuen esportazioen multzoa kontuan hartzen denean, Espainiako eta Nafarroako ekonomien arteko aldea handitu egiten da, Nafarroaren kalterako (ikusi 19. grafikoa).

18. Grafikoa


Esportazio errealak: Espainia eta Nafarroa (mar.08=100, UEEZ)



Iturria: BBVA Research, Datacomex-en oinarrituta

19. Grafikoa

Ondasun eta zerbitzuen esportazioak: Espainia eta Nafarroa (mar.08=100)



Iturria: BBVA Research, INE eta NEIn oinarrituta


Nafarroak defizitaren helburua bete zuen 2012an

2008. urtetik, Nafarroako kontu publikoek okertze joera izan dute, atzeraldien ondorioz diru-sarrerek ere behera egin dutelako eta erkidegoko gobernuak ekonomia sustatzeko ezarri ekonomiaren sustatze politiken ondorioz (ikusi 20. grafikoa). Testuinguru horretan, Nafarroak doitze-prozesua hasi zuen 2010. urtearen erdialdean, eta azken bi ekitaldietan azkartu egin da prozesu hori: 2012. urtea BPGren % 1,3ko defizitarekin amaitu zuen -% 1,3ko helburua betez-, eta GDP zorra (Gehiegizko Defizitaren Protokoloaren arabera) % 15,4koa izan zen (ikusi 21. grafikoa). Hala, Nafarroak gainerako autonomia-erkidegoek baino egoera hobea du 2013. urteari aurre egiteko: defizita 0,6 p.p. jaitsi behar du, urte bukaerarako zehaztutako % -0,7ko helburua betetzeko, baina urte horretarako zehaztutako zor-mugatik hamarren batera baino ez dago (% 15,5).

2013. urtera begira, Nafarroako Parlamentuko osoko bilkurak, 2012ko azaroan, 2013rako Nafarroako Aurrekontu Orokorren Foru Legearen osoko zuzenketa onartu zuen, eta horrek Nafarroako 2012ko Aurrekontuen luzapen automatikoa ekarri zuen. Hala, urte honetarako luzatutako aurrekontuetan, foru-erkidegoak 2012ko Aurrekontuko diru-sarrerek errepikatu ditu, baina, gastuen atalean beharrezko doikuntzak egin ditu, BPGren % 0,7ko aurrekontu-egonkortasunaren helburua betetzeko. Modu horretan, printzipioz, Nafarroako Gobernuaren doitze-politika kapital-gastuen murrizketan kontzentratuko da orain ere (nagusiki, kapital-transferentziei dagokienez), eta, hein txikiagoan, langile gastuan. Horren guztiaren ondorioz, luzatutako aurrekontuak % 6,3ko behaldia islatzen du 2012ko hasierako kredituekiko.

20. Grafikoa


Nafarroako F.E.: ahalmena (+)/ finantziazio-behara (-) (eskualdeko BPGren %)



Iturria: BBVA Research, MINHAPen oinarrituta

21. Grafikoa

AAEE: Defizita eta GDP zorra 4H12an (eskualdeko BPGren %)




Iturria: BBVA Research, MINHAPen eta BdEn oinarrituta

Bertze alde batetik, 2008. urtetik asko handitu den arren, Nafarroako Foru Erkidegoaren zorra gainerako autonomia-erkidegoen batez bestekoaren azpitik egon da, eta eskualdeko BPGren % 15,4koa izan da, 2012koa baino 2,5 p.p. handiagoa (ikusi 22. grafikoa); beraz, ez du estatuko gobernuak autonomia-erkidegoei likidezia emateko eta finantza-merkatuetara sartzeko zailtasunak orekatzeko abiarazitako Autonomia Erkidegoetarako Likidezia Funtsera jo behar izan.

Otsaileko informazioa urteko bilakaeraren adierazgarri ez den arren, 2013ko lehen bi hilabeteetan aurrekontuak nola gauzatu diren kontuan hartuta, badirudi Nafarroako Foru Erkidegoak aurrera jarraitzen duela doitze-politikekin. Alde horretatik, nahitaezkoa da Nafarroak European hitzartutako helburuak betetzeko konpromisoari eustea.

22. Grafikoa

AAEE: GDP zorra 2012. urte amaieran (eskualdeko BPGren %)




Iturria: BBVA Research, BdEn oinarrituta

Lan-merkatua: epe laburreko bilakaera okerragoak konfiantza galera azaltzen du, baina langabezia bereizgarri erabakigarria du

2012an, jarduera ekonomikoaren doikuntza nabarmen sumatu da Nafarroako lan-merkatuari dagozkion kopuruetan. Gizarte Segurantzako afiliatzeak % 3,3 murriztu dira (Espainian, % -3,4, ikusi 20. grafikoa), eta erregistratuko langabezia % 14,5 hazi da (% +10,9 Espainia osoan, ikusi 21. grafikoa). Biztanleria Aktiboaren Inkestako (BAI) datuek, berriz, joera negatibo hori berretsi dute: lanean ari zirenen kopurua murriztu egin zen Nafarroan 2012an: 11 mila pertsona gutxiago. Beraz, 2011ko Nafarroaren enplegu galera Espainiakoaren oso azpitik kokatu bazen ere (% -0,8 vs. % -1,9), 2012an parekatu egin ziren (% -4,2 vs. % -4,5). Epe laburrera, badirudi joera horrek ez duela hobera egin: laugarren hiruhilekoan, lanean ari zirenen kopurua % 2,1 murriztu zen (UEEZ) eta Espainian, berriz, % 1,4.

23. Grafikoa


Gizarte Segurantzako afiliatzea: Nafarroa eta Espainia (UEEZ, h/h, %)



Iturria: BBVA Research, Gizarte Segurantzako datuetan oinarrituta

24. Grafikoa

Erregistratutako langabezia (UEEZ, h/h, %)



Iturria: BBVA Research, EEZPn oinarrituta


Enplegu-galeratik harago, lan-merkatuaren doikuntza erregulazio-dosierren jokaeran eta horien eraginpeko langileen kopuruan ere islatu da, izan ere, 2009an gertatu bezala, Nafarroa berriro nabarmendu da arlo horretan: 2012an, erregulazio-dosierren eraginpeko langileen ehunekoak Espainiakoa baino hiru aldiz handiagoa da ia (ikusi 20. grafikoa). Nafarroan industria-jarduerak duen pisu handiagoak azalduko luke jokaera hori: BALren datuen arabera, 2012an Nafarroan lanean ari zirenen langileen % 25,5 industrian ari zen, eta Espainian arlo horretako langileak % 14,1 ziren batez beste. Gainera, enpresa handiek pisu handia dute Nafarroako ekonomian, gainerako autonomia-erkidegoekin alderatuta handiena (ikusi 27. grafikoa)⁵.

5: Enpresen tamaina handiagoa izateak beste abantaila batzuk ditu Nafarroan. Ikusi: http://www.bbva-research.com/KETD/fbin/mult/121204_Observatorioeconomicoespana_tcm346-371889.pdf?ts=1642013

Bilakaera sektorez sektore aztertzen denean ere ikusten da joera txar hori. Enpleguaren ikuspegitik, 2012ko lehen hiruhilekoan industriak izandako datu txarretan islatu zen jardueraren gainbehera (esportazioak nabarmen murriztu zirelako) eta, neurri apalagoan bada ere, baita azken hiruhilekoan izandakoetan ere. Aitzitik, zerbitzuetan, enplegu-doikuntza urtearen azken zatian nabarmendu zen bereziki, eta barne-salmenten jaitziera eta kontsumo pribatuaren murrizketarekin bat dator hori.

25. Grafikoa


Erregulazio-dosierren eraginpean dauden langileak (h/h, %)



Iturria: BBVA Research, Enplegu eta Gizarte Segurantzako Ministerioaren datuetan oinarrituta

26. Grafikoa


Enplegua Nafarroan: bilakaera eta ekarpenak sektoreen arabera (h/h eta p.p.)



Iturria: BBVA Research, INEn oinarrituta

27. Grafikoa

Enpresen zenbatekoa tamainaren arabera (enpresa guztien %, 2012)




Iturria: BBVA Research, INEn oinarrituta

Dena den, bertze autonomia-erkidegoekin alderatuta Nafarroan langabezia-tasa txikixeagoa izan denez (ikusi 28. grafikoa), krisiaren eragina zertxobait apalagoa izan da bertan, barne-eskarian doikuntza txikiagoa egiteko aukera izan baita. Langabezia-tasa hori txikixeagoa izan hainbat faktoreren eraginez: alde batetik, egitura ekonomikoa desberdina da, erran dugunez, industria-jarduerak pisu handiagoa duelako; giza kapitalak maila handia du eta langileen behin-behinekotasun tasa ere txikiagoa da (ikusi 29.grafikoa); garbi erakusten du horrek lanpostuari egokitutako prestakuntzak duen garrantzia, nazioarteko merkatuetan lehiakortasunari eusteko behar-beharrezkoa baita.

28. Grafikoa


Espainia: langabezia-tasa autonomia-erkidegoetan (4H12, biztanleria aktiboaren %)



Iturria: INE eta BBVA Research

29. Grafikoa

Behin-behinekotasuna eta langabezia (2012, %)



Iturria: BBVA Research, INEn oinarrituta

Industria, esportazioen bilakaerak baldintzatuta

Eskariaren ikuspegitik, krisia hasi ondorengo urteetan Nafarroako ekonomiak izan duen jokaeran esportazioak erabakigarriak izan badira, modu bertsuan, jokaera hori industria-sektorearen bilakaerak azalduko luke eskaintzaren ikuspegitik, neurri handi batean. Izan ere, 2008tik 2012ra, BPGren aldakuntzaren % 64 industriaren jokaerak azaltzen du, merkatu-zerbitzuek batez beste egiten duten ekarpena % 14ra murriztu baita (% 21, merkatu-zerbitzu ez direnak barnean hartzen badira); horixe ikus daiteke 30. grafikoa.

Nafarroaren egitura ekonomikoak zeresan handia du horretan: industria-sektorerako joera nabari da, eta beronek esportazioen mendekotasuna du. INEren datuek argi erakusten dute Nafarroan duen garrantzia oro har Espainiako ekonomian industriak duena baino askoz handiagoa dela, eta bat dator hori enpleguak sektorez sektore ageri duen egiturarekin (ikusi 3. koadroa); merkataritza-jarduerak, eraikuntzak eta higiezin zerbitzuek, berriz, pisu txikiagoa dute.

2012an, Nafarroako industria-jarduera % 3,9 murriztu zen, BPGren hazkundera 1,1 puntu kenduz; horrek eta eraikuntzaren bilakaerak (% 8,8 u/u, eta 7 hamarreneko ekarpen negatiboa) azalduko lukete eskaintzaren ikuspegitik Nafarroan BPGk izan duen uzkurtzea. Zerbitzuek modu positiboan eragin zioten hazkundera 2011n (+0,6p.p.), baina mantsotu egin ziren 2012n (+0,1 p.p.), bai familien eskaria eta bai enpresa-jarduerena moteltzearen ondorioz.

Industriari dagokionez, jaitsierarik handiena urtearen lehen zatian gertatu zen (ikusi 32. grafikoa), eta batez ere ondasun iraunkorrei eragin zien horrek; horien artean, hain zuzen, autoak, eta alor hori 2011. urte amaieratik ari zen gainbehera hori sumatzen (ikusi 26. grafikoa). Soilik urte amaieran ikusi zen halako susperraldi txiki bat, eta apur bat gora egin zueneko-ondasunen produkzioak; dena den, kanpo sektoreak agertu zalantzak ikusita eta egun dugun informazioarekin, 2013ko 1. hiruhilekoan berriro geldialdi bat izan dela aurrean daitekeen.

Zerbitzuek, berriz, urtean zehar behera egin dute gutxika-gutxika (ikusi 33. grafikoa): batez beste, ekonomia-jardueraren gorakadan soilik hamarren bateko ekarpena egin zuten, NEIk argitaratutako datuen arabera. Xehetako salmenten indizeak erakutsi bilakaeraren arabera, merkataritzak eta ostalaritzak hamarren bat kendu zioten hazkundera, jarduera profesionalak eta enpresei zuzendutako zerbitzuek bezala.

Grupo BBVAren
Ikerketa Zerbitzua

3. Koadroa


Nafarroako BPGren hazkundea 2012an

	Hazkundea 2012an (%)	2012ko BPGn pisua (%)	2012an hazkundeari egindako ekarpena (%)	Espainiaren aldekoa	
				Hazkundea 2012an (%)	2012ko BPGn pisua (%)
Nekazaritza, abeltzaintza, basogintza eta arrantza	4,0	2,5	0,1	1,8	0,2
Industria	-3,9	28,2	-1,1	-1,0	12,6
- Manufaktura-industria	-4,1	25,9	-1,1	-0,1	13,5
Eraikuntza	-8,8	8,4	-0,7	-0,6	-0,9
Txikizkako eta handizkako merkataritza; motordun ibilgailuen eta motozikleten konponketa; garraioa eta biltegiak; ostalaritza	-0,7	18,2	-0,1	0,4	-4,5
Informazioa eta komunikazioak	1,8	2,2	0,0	0,7	-1,7
Finantza eta aseguruaren esparruko jarduerak	-0,3	3,1	0,0	-0,5	-0,7
Higiezinaren esparruko jarduerak	1,9	5,5	0,1	0,1	-1,6
Jarduera profesionalak, zientifikoak eta teknikoak; administrazio-jarduerak eta zerbitzu osagarriak	-1,1	4,9	-0,1	-0,4	-2,0
Herri-administrazioa eta defentsa; nahitaezko gizarte-segurantzak; hezkuntza, osasun-jarduerak eta gizarte-zerbitzuak	0,1	15,7	0,0	0,6	-1,0
Jarduera artistikoak, aisialdiak eta entretenimendu-jarduerak; etxeko artikuluaren konponketa eta beste zerbitzu batzuk	-0,5	3,0	0,0	0,1	-0,3
Balio erantsi gordina guztira	-1,9	91,8	-1,8	-0,4	0,0
Produktuen gaineko zerga garbiak	-0,7	8,2	-0,1	-0,4	0,0
Barne-produktu gordina merkatu-prezioetan	-1,8	100,0	-1,8	-0,4	

Iturria: BBVA Research, INEn oinarrituta. Eskualdeekako Kontabilitatea

30. Grafikoa


Nafarroako BPG eta hazkundeari egindako ekarpenak, eskaintzaren arloan (% eta p.p.)



Iturria: BBVA Research, NEIn oinarrituta.

31. Grafikoa


Industria-produkzioaren indizea (h/h, UEEZ)



Iturria: BBVA, INEn oinarrituta

32. Grafikoa


**Industria-produkzioaren indizea:
Nafarroa (h/h, UEEZ)**



Iturria: BBVA, INEn oinarrituta

33. Grafikoa

Zerbitzuen sektorearen jarduera-indizea (h/h, UEEZ)



Iturria: INE eta BBVA Research

Aurreikuspenak: 2013an hondoa jo eta 2014an hasiko da susperraldia

Laburbilduz, 2012an zehar Espainiako gainerako erkidegoekin alderatuta Nafarroako ekonomiak izan zuen jokaera bereizgarria hiru faktorek azaltzen dute: sektore pribatuak metatutako desoreken zuzenketa-erritmoak, zerga-doikuntzarako prozesuen jarraipenak eta esportazioen bilakaerak. Lehen faktorearen kasuan, Nafarroako ekonomiaren desorekak txikiagoak dira: aurrezki-tasa batez bestekoa baino handiagoa da, famili eta enpresen zorpetzea Espainiako gainerako erkidegoetakoa baino apalago hazi da, langabezia-tasa ere txikiagoa da eta higiezinaren sektoreko gain-eskaintza murriztu egin da.

Eskuragarri dauden datuekin, 2012ko jaitsieraren ostean, Nafarroako ekonomiak zalantza giroa islatzen du. Barnean, lan merkatuak eta higiezinaren aberastasun aldaketak kontsumo pribatua kaltetzen jarrai dezakete aurten, eta sektore publikoaren ekarpenak negatiboa izaten jarraituko du. Azken honek zerga finkatze prozesuari eutsi behar dio, BPGren 6 hamarrenen adinako ahaleginarekin, EEAAren batez bestekoa puntu batekoa izanik.


Finean, 2013an ere ekonomiaren atzeraldiak jarraitu egingo du, barne doitzeen ondorioz eta Nafarroarentzat funtsezkoen diren merkatuen dinamikotasun eskasagatik. Horrela, aukera gehien duen egoeran, Nafarroako ekonomia % 1,2 uzkurtuko da eta 2014an, berriz, % 1,1eko hazkundea izango du. Horrek, 2012an INEren Eskualdekako Kontabilitatean izandago alde negatiboa ezabatzea erran nahi du.

Bere osotasunean, Aurrera begira, Nafarroako ekonomiak bertze autonomia erkidegoekiko abantailak ditu, batipat, epe ertainera begira jartzen bagara. Lehenengo eta behin, Nafarroako ekonomiaren desorekak txikiagoak dira: aurrezki-tasa batez bestekoa baino handiagoa da, eta famili eta enpresen zorpetzea txikiagoa eta, horrekin batera, higiezinaren sektorearen gehiegizko eskaintza egokitze prozesua amaitzetik gertu da. Bigarrenik, faktore batzuen zuzkidura gainerako autonomia-erkidegoek dutenaren batez bestekoaren gainetik dago nabarmen; horixe islatzen da I+Gn egindako ahalegina (arlotan publikoan eta enpresetan, ikusi 34. grafikoa), giza kapitalaren zuzkidura edota produktibitatea aztertzean. Aldi berean, langabezia-tasa nahiko txikia izateak eta biztanleko BPG altuak (biak Espainiako gainerako erkidegoetakoekin alderatuta) erkidego honen alde jokatzeko dute, eta, beraz, gertakari exogeno negatiboek barne-eskaria murriztuz izan dezaketean eragina bertze erkidego batzuetan baino hein txikiagoan islatzen da.

Azkenik, erdi- eta goi-teknologiako ondasunetan espezializatuagoa izatea (ikusi 35. grafikoa) eta kanpora nabarmen irekia izatea ere susperraldiaren alde jokatzeko duten ezaugarriak dira.

34. Grafikoa


Ikerketa eta garapena, eta biztanleko BPG



Iturria: BBVA Research, INEren oinarrituta

35. Grafikoa

Nafarroako esportazioak produktuen eduki teknologikoaren arabera (%)



Iturria: BBVA Research, Datacomexen oinarrituta


Bestalde, epe laburrean sumatu diren bertze muga batzuek susperraldia zaildu dute, eta, horren ondorioz, Espainian baino zorrotzagoa izan da atzeraldia 2012an. Lehenik eta behin, foru-sistemak zerga-politikan Nafarroari zenbait abantaila badakarzkio ere, zorraren gehikuntzaren abiadura biziak BPGren % 15,4an kokatu du bere zorra. Beraz, herri-administrazioen finantza-egonkortasunerako Zerga eta Finantza Politikarako Kontseiluak adostutako printzipioen arabera 2020an lortu beharreko mugaren gainetik dago orain (% 13koa da muga hori); erabakimenez zerga-doikuntzarekin jarraitzea behartu ditu horrek. Hortaz, sektore publikoak egingo duen ekarpena ez du aldeko izango etorkizun hurbilean.

Diru sarrera autonomikoei dagokienez, finantziario komunean izan daldaketek Erkidego Autonomo batzuen sarreri eragiten die, finantziario sistemaren aldagaien doitze eta azken likidazioaren arabera⁶. Horrek 2013ko defizit helburua lortzeko ahalegin fiskala baldintzatzen die, 2012ko defizitetik abiatuta. Foru Erkidegoari ez dio egoera horrek eragiten, daukan finantziario erregimen berezia medio. Ondorioz, Nafarroaren kasuan, egin beharreko ahalegina 2012 eta 2013ko defiziten aldeari dagokio bakarrik, aldiz, erregimen komuneko erkidegoek ahalegin txikiagoa (handiagoa) egin behar dute Estatutik datozkien sarrerak handitu (txikitu) diren arabera.

6: Ikus Situación España 1T13, hemen eskuragarri: http://www.bbva.com/KETD/fbin/mult/1302_Situacionespana_tcm346-373390.pdf?ts=1742013

36. Grafikoa

2013ko helburu fiskala lortzeko egin beharreko ahalegina eta BPGren hazkunde aurreikuspena



Iturria: BBVA Research, MINHAP eta INEn oinarrituta


Bigarrenik, kanpo-sektorearen euskarriak nahiko sendoak badira ere, egungo esportazioen zuzenketak geldialdi garrantzitsua ekarri dio Nafarroari. Zehazki, esportazioen bolumen handia batez ere frantziar eta alemaniar merkatuetan oinarritzen da, eta iazko urtearen azken zatian zuzenketa nabarmena izan zuten haiek ere; gainera, 2013an ere ez dira hagitz dinamikoak izango. Beraz, Nafarroako ekonomia suspertzen hasi dela ikusteko, zain egon beharko dugu 2014ra arte.

Nafarroako produktuei dagokienez, ekipamendu-ondasunen edo kontsumo-ondasun iraunkorren eduki teknologikoari eta izaerari esker, berorien salmentak zikloarekin batera gehiago handitzen dira oinarritzakoagoak diren bertze produktu batzuenak baino. Hortaz, bezero diren merkatuak suspertu ahala, bereziki Nafarroak hazkunde positiboagoa izan dezan lagundu behar luke, 2010ean eta 2011n gertatu zenaren ildotik. Bistan da eskualdearen egungo gaitasunei etekina atera behar zaiela, esportazioek geografikoki eta sektoreka izan behar duten dibertsifikazioa handitzen jarraitzeko, eta, horretarako, gehien hazten diren kanpo-merkatuen dinamismoa baliatzeko aukera emango duten merkatu eta produktuak bilatu beharko dira.

Azkenik, teknologiaren sektorea Nafarroako lan-merkatua babesteko faktore bat da, krisialdietan lan-merkatuan langabezia-tasa txikiagoa dadin laguntzen baitu; eta giza kapitalean egindako ahalegina ere oinarritzakoa izan da goi-teknologiako sektoreetan enplegua izateko. Aurrera begira, garrantzitsua da lehiakortasunean etengabeko irabaziak bermatuko dituzten erreformatan aurrera egitea, giza kapitala hobetuz, administrazio-kostuak murriztuz, energiaren prezioa murriztuz eta funtzionamendu eraginkorragoa bultzatuz, bai lan, bai ondasun eta zerbitzuen merkatuetan.

37. Grafikoa


2007an teknologia altuan edo ertain-altuan enplegatutak vs. 2007tik 2011ra langabezia-tasan izandako aldaketa



Iturria: BBVA Research, INEn oinarrituta

38. Grafikoa

Giza kapitala vs. teknologia altuan edo ertain-altuan enplegatutak



Iturria: BBVA Research, INEn oinarrituta

4. Koadroa

Espainia: BPGren hazkunde erreala Erkidego Autonomoka

	2011	2012	2013	2014
Andaluzia	0,0	-1,7	-1,6	1,1
Aragoi	0,3	-1,5	-1,1	1,3
Asturias	-0,1	-2,5	-1,1	1,0
Balearrak	1,6	-0,3	-0,2	1,4
Kanariak	1,7	-1,0	-0,7	1,0
Kantabria	0,5	-1,3	-0,9	1,1
Gaztela eta Leon	1,1	-1,8	-0,7	1,4
Gaztela-Mantxa	-0,4	-3,0	-1,6	0,8
Katalunia	0,6	-1,0	-1,2	1,2
Extremadura	-0,9	-2,2	-0,9	1,0
Galizia	-0,1	-0,9	-0,8	1,2
Madril	0,6	-1,3	-0,6	1,4
Murtzia	0,0	-1,7	-1,7	0,8
Nafarroa	1,4	-1,8	-1,2	1,1
Euskadi	0,8	-1,4	-0,7	1,2
Errioxa	0,9	-2,1	-0,7	1,2
Valentziako Erkidegoa	-0,2	-1,5	-1,8	0,7
Espainia	0,4	-1,4	-1,1	1,1

Iturria: BBVA Research, INEn oinarrituta

1. Errekoadroa. Nafarroako jarduera ekonomikoari buruzko inkesta 2013ko lehen hiruhilekoan

Nafarroan 2013ko lehen hiruhilekoan izan den jarduera ekonomikoari buruz egindako inkestaren behin-behineko emaitzek halako okerragotze bat erakusten dute aurreko hiruhilekoko iritziarekin alderatuta, urteartekokomparaketan hobetu arren. Dena den, ekonomia atzeraldian dagoen ustea mantenduz, hurrengo hiruhilekorako espektatiben hobekuntza txiki bat eman da.


2010eko bigarren hiruhilekotik, BBVA Research-ek Foru Erkidegora zabaldu zuen eskualde analisisien barnean abian duen proiektu garrantzitsuenetako bat: BBVAren bulego sareko langileei inkestak egitea. Jarduera Ekonomikoari buruzko Inkestak koiuntura analisia hornitu nahi du, ekonomiak berriki izandako bilakaerari eta berorren ikuspegiari buruzko unean-uneko tresna egonkor batez. Nafarroako ekonomia atzeraldian dela berretsi dute inkestaren emaitzek, 2012ko lehen hiruhilekoan orokortutako ikuspegi ezkorrearekiko nabarmen hobera egin badu ere.

Paradoxikoki, hiruhilekoko jarduerari buruzko inkesta azken urtebeteko ezkorrena da eta, aldiz, hurrengo hiruhilekorako espektatibak azken sei inkesta oldeetako baikorrenak dira. Zehazki, enpleguaren gaineko iritzia txartu egin da sektore guztietan 4H12arekiko eta bertze horrenbertze gertatu da inbertsioarekin (industrial nahiz zerbitzuetakoa) eta salmentekin. Bestalde, azken hiruhilekoetan gertatuaren kontrara, esportazioen gaineko iritzian hobekuntza nabarmena gertatu da: % 43k hobera egin dutela uste du eta % 42k mantendu egin direla.

Azken hiruhilekoetako BPGren benetako bilakaerarekin alderatuta, inkestak antzeko seinaleak islatzen ditu: erregistrorik txarrena 2012ko lehen hiruhilekoko da (40. grafikoa), eragile ekonomikoentzat ziurgabetasun handikoa izan den inguru bati dagozkion gorabeherak eta, horren ondoren, gainbehera txikiagoko joera. Nahiz eta espektatibek epe laburrera negatiboak izaten jarraitu, negatibotasun hori gutxituz doa, BBVA Researchen aurreikuspenen ildoan: urtean pixkanakako hobekuntza, oraindik ere atzeraldia izan arren.

39. Grafikoa

Nafarroa. Jarduera ekonomikoa eta espektatibak



Iturria: BBVA

5. Koadroa

Jarduera ekonomikoari buruzko inkesta. NAFARROAko emaitza orokorrak

Nafarroako Jardun Ekonomikoari buruzko laburpen taula (erantzunen %koa) 13-mar


	Handitu	Egonkor	Txikitu	Saldoa (*)
Jarduera ekonomikoa	14	51	36	-22
Hurrengo hiruhilekorako aurreikuspena	5	46	49	-44
Industria-ekoizpena	14	41	46	-32
Eskari zorroa	14	46	41	-27
Stock maila	10	64	25	-15
Lehen sektoreko inbertsioa	7	76	17	-10
Industriako inbertsioa	0	56	44	-44
Zerbitzuetako inbertsioa	15	34	51	-36
Eraikuntza berriak	7	32	61	-54
Industriako enplegua	10	31	59	-49
Zerbitzuetako enplegua	14	27	59	-46
Eraikuntzako enplegua	0	29	71	-71
Prezioak	14	66	20	-7
Salmentak	0	51	49	-49
Turismoa	10	78	12	-2
Esportazioak	3	88	8	-5

(*) Muturreko erantzunen saldo edo alde garbia

Iturria: BBVA Research

40. Grafikoa


Nafarroa: jarduera ekonomikoa, BPG h/h vs BBVAren jarduerari buruzko inkesta (muturreko erantzunak)



Iturria: BBVA Research

41. Grafikoa

Nafarroa: jarduera ekonomikoa, BPG h/h vs BBVAren jarduerari buruzko inkesta - Aurreikuspenak (muturreko erantzunak)



Iturria: BBVA Research

4. Autonomia-erkidegoen hezkuntza-jarduna⁷

Zein autonomia-erkidegok lortzen dituzte emaitzarik onenak hezkuntzan? De la Fuente eta Gundín-en lanean (2012)⁸⁹, galdera horri erantzuteko baliagarri izan daitezkeen zenbait adierazle garatzen dira argiki bereizitako jardun-irizpideen bidez; berorietan, prozesuarekin lotutako alderdiak (hezkuntza-zikloetako sarbidea, arrakasta eta iraupena) nahiz ezaguera barneratzearen ikuspegitik neurtzen diren emaitzak biltzen dira.

Unibertsitateaz kanpoko hezkuntza-ziklo bakoitzerako lantzen dira proposatzen diren adierazleak, 2008-2009 ikasturterako Hezkuntza Ministerioak argitaratutako datuak erabiliz; eta elkarrekin batera daitezke, hezkuntza-mailen edo jardunaren neurketa-irizpideen arabera laburpen-adierazle sintetikoak osatzeko, nahiz interesgarriak diren dimentsio guztiak bateratuz emaitzei buruzko adierazle globalak osatzeko. Egoera desberdinei aurre egin behar dieten hezkuntza-sistemen artean alderaketa baliagarriak egin ahal izateko, sintesi-adierazle batzuetarako indize araztuak ere landu dira, kanpoko bi faktoreren eragina zehaztu ondoren, eskola-jardunaren gainean eragin nabarmena izan baitezakete: hezkuntzara zuzentzen diren baliabideen bolumena, eta ikasleen familien hezkuntza-maila, biztanle helduen batez besteko prestakuntza-mailarekiko.

Hezkuntza-jardunaren adierazleak eraikitzea

Hezkuntza-sistemek betetzen duten zeregina neurtzea ez da lan erraza, sistema horiek hainbat helburu bete nahi baitituzte aldi berean eta, batzuetan bederen, horietako batzuk kontraesankorrak izan baitaitezke elkarrekiko. Oso sakonera jo gabe ere, nahiko argi dago, hezkuntza-sistema batean lortu nahi diren helburuen artean, hezkuntza-maila bakoitzean ahalik eta pertsona gehienek sarbidea izatea lortu nahi litzatekeela (horren onura ahalik eta jende gehienak lortzea), eta denbora-tarte zehatz batean osatu ahal izatea, curriculumean jasotzen diren ezagutzak eta gaitasunak barnerratu ondoren. Hortaz, gutxienez hezkuntza-jardunaren barnean interesgarriak izan daitezkeen lau dimentsio edo alderdi bereiz daitezke, laburtzeko, hitz hauen bidez adieraziko ditugunak: sarbidea, arrakasta, iraupena eta gaitasunak.

6. Koadroa

Hezkuntza-jardunaren oinarriko adierazleak

1. Prozesu-adierazleak

a. Sarbidea: biztanleria guztitik zer zati sartzen da hezkuntza-ziklo bakoitzean?

b. Arrakasta: amaitzeko zer probabilitate dute?

c. Iraupena: zenbat denbora behar dute amaitzeko?

d. Eraginkortasuna: gainditutako ikasturte bakoitzeko batez besteko urteak.

2. Balio erantsiaren edo gaitasunen adierazlea

Zenbat dakite ikasleek?

Iturria: A. de la Fuente

Espainiako eskualdeetako hezkuntza-sistemen funtzionamendua balioesteko erabil daitezkeen zenbait adierazle landu dituzte De la Fuente eta Gundín-ek (D&G), lau irizpide horien ikuspegitik. Hezkuntza-maila gehienetarako, sarbidea deritzon adierazlea sarbideari dagokion tasa gordina da, eta honela definitzen da: hezkuntza-ziklo zehatz batean hasten diren ikasleen (berorien adina alde batera utzita) eta teorian eta egoera normaletan maila horri dagokion adineko biztanle

7: A. de la Fuente eta M. Gundín (2012). "Indicadores de desempeño educativo regional: metodología y resultados para los cursos 2005-06 a 2008-09." Mimeo, Análisi Ekonomikorako Institutua (CSIC).

8: A. de la Fuente eta M. Gundín (2012). "Indicadores de desempeño educativo regional: metodología y resultados para los cursos 2005-06 a 2008-09." Mimeo, Análisi Ekonomikorako Institutua (CSIC).

9: A. de la Fuente eta M. Gundín (2012). "Indicadores de desempeño educativo regional: metodología y resultados para los cursos 2005-06 a 2007-08". Documento de Trabajo nº 12/29. BBVA Research: http://www.bbva-research.com/KETD/fbin/mult/WP_1129_tcm346-270213.pdf?ts=122013

guztien arteko zatidura¹⁰. Hezkuntza-maila bateko arrakasta –bertan sarbidea izatea ezinbesteko baldintza da horretarako–, urteko batez besteko biziraupen-tasaren bidez neurtzen da. Aurrez aipatu dugun sarbide-tasa eta graduazio-tasa gordina erabiliz osatzen da aldagai hori, eta maila jakin bat arrakastaz amaitzen duten edozein adinetako ikasleen eta teoriarik maila horri dagokion adinetako biztanle guztien arteko zatidura kalkulatuaz definitzen da. Iraupena, berriz, maila bakoitzean ikasturte bat egiteko batez beste behar duten denboraren alderantzizkoaren bidez neurtzen da, hau da, ikasten ari diren urte bakoitzeko gainditutako ikasturteen batez besteko zenbakiaren alderantzizkoa zehaztuz, sistemaren barnean jarraitzen duten pertsonen kasuan. Biziraupen-tasatik eta erreplikazte-tasatik abiatuta kalkulatzen da aldagai hau, eta erreplikazte-tasa horretara hurbiltzeko, dagokion ikasturte horretan erreplikazte ari diren ikasle guztien eta mailako ikasle guztien arteko zatidura ateratzen da, betiere, erreplikazte ari direnek lehen ahaleginetan gainditzen dutela pentsatuz eta hezkuntza ziklo bat osatu gabe ikasketak bertan behera uzten dituzten guztiek, euren lehen ahalegina zutela suposatuz.

Ikasten ari diren urte bakoitzeko gainditutako ikasturteen kopurua ere kalkulatzen da, antzeko prozedura bat erabiliz. Arrakasta eta iraupena bateratzen dituen adierazlea da aldagai hori, eta hezkuntza-sistemak bere input nagusia (maila zehatz batean sartzen diren ikasleen denbora) output gordin (gainditutako ikasturteak) bihurtzeko zer-nolako eraginkortasuna duen neurtuko luke. Oso interesgarria da ikustea, hezkuntzako inbertsioaren errentagarritasuna kalkulatzeko orduan, funtsezko lekua betetzen duela adierazle horrek, berorren zuzeneko kostuak nahiz aukera-kostuak ikasleek eskolatuta pasatzen duten denboraren arabera baitira; eta, aldi berean, arrazoizkoa dirudi pentsatzea berorren onurak arrakastaz egiten diren ikasturteen kopuruarekiko proportzionalak izango direla.

Orain arte definitutako adierazleak hezkuntza-prozesuaren mekanikaren hainbat alderditan zentratzen dira: biztanleriaren zer zatiki sartzen den hezkuntza-ziklo bakoitzean, amaitzeko zer probabilitate duten, edota zenbat denboran amaituko duten. Hezkuntza-sistemaren zereginaren hiru dimentsio horiei laugarrena erantsi behar zaie, funtsezkoa hori ere, eta berorren emaitzekin edo ezagutzaren ikuspegitik dakarren balio erantsiarekin du zerikusia: zenbat ikasi dute ikasleek ikasgeletan?

Hezkuntza-ziklo bakoitzeko ikasleen gaitasunak neurtzeko, estatuko lurralde osorako homogeneoak izango diren ebaluazio-proben emaitzak behar ditugu. Zoritxarrez, herrialde honetan horrelako ezaugarriekiko ebaluazio gutxi egin dira. 2008-2009 ikasturterako erabil ditzakegun bakarrak bi hauek dira: batetik, PISAren oinarritzko gaitasunen probak, 15 urteko ikasleei zuzentzen zaizkienak, OCDEk diseinatu eta antolatutakoak, eta 2009ko edizioan, hain zuzen, 17 autonomia-erkidegoetatik 14ren parte-hartzea izan dutenak ordezkartzen bidez; eta Lehen Hezkuntzako laugarren mailarako 2009ko diagnostiko-ebaluazio orokorra. Bi kasuetan, eskualdeen batez besteko emaitzak lantzen dira proba bakoitzean aztergai hartutako eremuetan (hizkuntza, matematika eta natura-zientziak, eta baita gizarte-zientzien atala ere, diagnostiko-ebaluazioaren kasuan).

Aurreko paragrafoetan deskribatutako aldagaiak estandarizatu egin dira, eta batez besteko nazionalaren bidez normalizatu dira, berorri 100 balioa emanda; eta elkarrekin konbinatu dira, eskualde bakoitzeko hezkuntza-emaitzak laburtuko dituzten zenbat adierazle sintetiko eraikitzeko hezkuntza-ziklo bakoitzean edo jardunaren dimentsio interesgarri bakoitzaren arabera, eta jardun-adierazle globalak ere osatzeko. Hezkuntza-zikloetako batez bestekoak kalkulatzeko orduan, bakoitzaren iraupen teorikoaren proportzioan ponderatuko dira horiek, eta, bide horretatik, unibertsitateaz kanpoko irakaskuntzaren “batez besteko ikasturteari” dagokion emaitza modura interpretatu ahal izango da emaitza. Jardun-irizpideei dagozkien batez bestekoak kalkulatzeko, prozesuko hiru irizpideei (sarbidea, arrakasta eta iraupena) pisu erlatibo bera esleitzen zaie, eta gaitasunen adierazleari prozesu-adierazlearen multzoari dagokion pisu bera esleitzen zaio.

10: Haur Hezkuntza eta Unibertsitateko Hezkuntza salbuespen dira, nahiz eta horiei dagozkien sarbide-tasak ere ikertuko diren. Lehengoaren kasuan, bi urteko eta hiru urteko haurren batez besteko eskolazte-tasa garbiarekin lan egiten hau da, adin hortako populazioaren eskolaratuta dagoen zatikiarekin. Unibertsitateko hezkuntzarako sarbideari dagokionez (unibertsitateaz kanpoko hezkuntza-sistemaren zereginetan garrantzi handiko dimentsioa da hori), unibertsitateko sarbide probak gainditzen dituzten biztanleen tasa gordinaren bidez neurtzen da, eta, horrela, unibertsitateko ikasleen mugikortasun handiarekin lotutako arazoak saihesten dira, jatorrizko eskualdearen arabera adierazle bat kalkulatuaz, gure xedeetarako horixe baita eraginkorra.

Hezkuntza-jardun gordinaren indizeak

Eskualdeko hezkuntza-jardun gordinaren analisiaren emaitza nagusiak 7. koadroan eta 8. ean laburtu dira. 8. koadroan, prozesuko jardun-adierazleen batez bestekoak ageri dira, hezkuntza-mailen arabera; maila bakoitzean, sarbide-, arrakasta- eta iraupen-indizeen artean batez bestekoak atereaz lortu dira, gaitasunen adierazlea alde batera utzita; izan ere, adierazle hori soilik Lehen Hezkuntzan eta DBHn eskura daiteke. Azkenean, hezkuntza-mailen arteko batez bestekoak (bakoitzaren iraupenaren arabera ponderatuta) emango digu prozesuko jardun-adierazle globala (G1), koadroaren azken zutabearen erakusten dena eta eskualdeak ordenatzeko erabili dena, hain zuzen.

8. koadroan, oinarritzko adierazleen batez bestekoak hezkuntza-zikloetan bereizita kalkulatu dira, jardunarekin lotutako alderdiei buruzko laburpen-adierazleak lortzeko; kasu honetan, gaitasunen adierazlea barnean hartu da, soilik Lehen Hezkuntzako eta DBHko emaitzetan oinarrituta, lehen ere erran dugunez, horietan bakarrik daudelako eskuragarri. Indize horiek batu egin dira aldi berean, koadroaren azken aurreko zutabearen ageri den jardun-adierazle globala (G3) lortzeko; sarbide-, arrakasta- eta iraupen-adierazleen eta gaitasunen adierazlearen arteko batez besteko ponderatua atereaz kalkulatu da berori (lehenengo hirurek 1/6eko pisua dute bakoitzak, eta gaitasunen adierazleak, berriz, 1/2ekoa). Koadroko azken zutabeak, berriz, lehentxeago aipatu dugun eraginkortasun-adierazlea erakusten du (arrakasta eta iraupena).

7. Koadroa

Prozesuko laburpen-adierazleak hezkuntza-mailen arabera eta prozesuko jardun-adierazle globala (G1) 2008-2009 ikasturtea

	LH	DBH	Batxilergoa	LH 1	LH 2	G1
EAE	100,3	103,8	114,8	104,9	125,3	110,2
Asturias	100,1	103,5	111,5	107,2	110,5	104,6
Galizia	100,2	101,0	105,3	113,4	115,1	104,1
Katalunia	100,5	101,8	99,8	109,4	109,6	103,3
Kantabria	100,3	102,3	101,8	102,6	102,5	102,3
Aragoi	99,4	100,3	101,7	106,8	101,0	102,0
Nafarroa	100,3	102,6	104,4	97,8	96,3	101,4
Gaztela eta Leon	99,4	100,7	103,9	99,8	100,0	100,5
Madril	100,0	100,8	105,0	91,0	98,0	100,1
Errioxa	100,3	99,9	98,3	103,3	98,6	99,1
Valentzia	100,0	98,2	97,3	103,2	100,1	98,9
Kanariak	99,9	99,6	98,7	101,6	96,3	98,3
Murtzia	100,0	99,6	98,6	94,2	90,7	97,4
Andaluzia	99,9	98,1	94,2	96,2	92,5	97,0
Extremadura	100,0	100,4	100,0	94,1	88,4	96,7
G.-Mantxa	99,7	98,9	98,9	95,9	88,2	96,3
Balearrak	99,4	98,3	92,1	93,1	84,4	93,1
Espainia	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0
Desb. estandarra	0,3	1,7	5,5	6,1	10,2	3,9

Oharra: G1 kalkulaterakoan, Haur Hezkuntzako eta Unibertsitateko sarbide-datuak ere erabili dira.
Iturria: A. de la Fuente

8. Koadroa

**jardunaren laburpen-adierazleak irizpideen arabera
eta prozesuko jardun-adierazle globala eta ezagueri dagokiena (G3) 2008-2009 ikasturtea**

	Sarbidea	Arrakasta	Iraupena	Gaitasunak	G3	Eraginkortasuna
EAE	119,6	102,7	104,9	105,2	107,1	107,0
Asturias	108,7	101,1	102,5	104,9	104,5	103,5
Galizia	104,5	99,2	101,2	104,9	103,3	100,1
Katalunia	103,0	99,3	98,4	106,1	103,2	98,0
Kantabria	106,6	97,3	101,4	103,5	102,7	98,9
Aragoi	98,8	98,3	100,2	106,1	102,6	98,9
Nafarroa	99,0	100,6	101,1	104,9	102,5	101,5
Gaztela eta Leon	105,4	103,3	103,1	101,1	102,5	105,9
Madril	99,7	102,6	102,4	102,8	102,2	104,7
Errioxa	107,1	99,3	102,1	100,6	101,7	101,4
Valentzia	92,5	98,6	99,3	101,7	99,2	98,0
Kanariak	93,5	99,1	101,3	99,9	98,9	100,3
Murtzia	92,1	99,7	100,0	100,0	98,7	99,8
Andaluzia	94,5	101,7	95,9	97,7	97,5	97,6
Extremadura	98,0	98,5	100,4	94,5	96,7	99,0
G.-Mantxa	98,0	96,9	99,9	93,9	96,1	97,1
Balearrak	85,8	97,3	99,0	94,9	94,5	96,7
Espainia	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0
Desb. estandarra	7,7	1,9	2,0	4,0	3,3	3,0

Iturria: A. de la Fuente

7. eta 8. koadroetako azken lerroan, mailen eta jardun-irizpideen arabera eman diren batez besteko emaitza-indizeen desbideratze estandarra ageri da. Mailen araberrako koadroan, jardun-adierazlearen barreiadura oso txikia da Lehen Hezkuntzan (soilik eskualdeen arteko alde txikiak adierazten ditu errepikatze-tasan), eta, hezkuntza-mailetan gora egiten dugun neurrian, handitu egiten da; jada hor aldeak handiagoak dira jardunaren hainbat dimentsiotan. Azken horiei erreparatzen badiegu, ikusiko dugu eskualdeen arteko aldeak handiak direla sarbide-tasan (irizpide horren arabera ondoen eta okerren kokatutako eskualdeen artean, 34 puntuko tartea dago); eta alde horiek pixka bat txikiagoak dira gaitasunen mailan eta, bereziki, biziraupen-tasetan eta ikasketen batez besteko iraupenean, eskualdeen artean nahiko alde txikiak baitaude.

Hezkuntza-mailei eta jardunaren alderdi desberdinei dagozkien indizeen arteko korrelazioa positiboa da oro har¹¹, nahiz eta ez den beti oso altua. Beraz, batez bestekoetan ondo dabilzan eskualdeek emaitza onak izan ohi dituzte maila eta dimentsio guztietan, eta, beraz, jarduna aztertzean laburpen-indizeen arabera zehazten diren sailkapenak ez dira oso desberdinak elkarrekiko. Oro har, Espainia iparraldeko autonomia-erkidegoak daude sailkapenaren aurreneko tokietan, EAE buru dutela, eta hegoaldeko eta hego-ekialdeko eskualdeak daude azken tokietan.

Jardun-adierazle araztuak

Eskualdeetako hezkuntza-sistemen emaitzetan zuzen-zuzenean eragiten dute kanpoko zenbait faktorek; berorien zeregina aztertzerakoan, horien eragina zokoratzea komeniko litzateke, gure arreta bakoitzaren balio erantsian jartzeko. Horietako faktore bat hezkuntzara zuzentzen diren baliabideen zenbatekoa da. 42. grafikoan ikus daitekeenez, alde nabarmenak daude eskualdeen artean, ikasle bakoitzeko gastuaren atalean. Banaketa horren bi muturren arteko aldea –hurrenez


11: Salbuespen da Lehen Hezkuntza, prozesu-adierazleak erlazio negatiboa baitu gainerakoekin. Beraz: Lehen Hezkuntzako ikasleak errepikatzea maiz bidaltzeko joera duten eskualdeek, gero, prozesuko emaitza hobekien lortzen dituzte goragoko mailetan. Errepikatzeen kopurua ikasketen exijentzia-mailaren adierazletzat hartzen badugu, emaitzak ez dirudi zentzugabea; baina, Lehen Hezkuntzako adierazlearen oso alde txikiak daudela kontuan hartuta, zaila da erabakitzea zenbateraino fida gaitzkeen horretaz.

hurren, erkidego foralak daude mutur batean, eta Andaluzia eta Murtzia bestean-, 60 puntu portzentaletik gorakoa da, eta, ikasleko eta urteko, 2.700 euro inguru adierazten du horrek. Gai honi buruzko lanek diote gastu handiagoak ez dakartzala nahitaez hezkuntza-emaizta hobek; baina bitartekoetan horrelako aldeak egoteak, halaberrez pentsarazten digu ez ote duen eragingo hezkuntzaren kalitatean; esate baterako, zailtasunak dituzten ikasleei eskain dakiekeen laguntza-mailan.

Zalantzarik gabe hezkuntza-jardunari eragiten dion beste faktore-multzo bat ikasleek beren etxeetan dituzten baldintza sozioekonomiko eta kulturekin lotuta dago. Erantsitako faktore horien adierazle gordin gisa, D&G egileek helduen prestakuntza-maila erabiltzen dute, eta, horretarako, 24 urtetik gorako biztanleek batez beste prestakuntzan pasatu dituzten urteak zenbatzen dituzte de la Fuente eta Doménechi (2012) jarraiki.

42. Grafikoa


Ikasleko eta urteko gastua unibertsitateaz kanpoko irakaskuntzan, 2005



Oharra: gastu publiko eta pribatua, unibertsitateaz kanpoko ikasleko (itunpeko ikastetxeetan eta pribatuetan eskolatutakoak barnean hartuta). Magnitude hau bereiz kalkulatu da eskualde bakoitzean, Lehen Hezkuntzako ikasleak eta Haur Hezkuntzakoak hartuz batetik, eta Bigarren Hezkuntzakoak eta Lanbide Heziketakoak, bestetik. Ondoren, bi aldagai horien batez besteko ponderatua kalkulatu da, Espainia bere osotasunean hartuta, unibertsitateaz kanpoko ikasleen kopuru osoarekiko maila bakoitzak duen pisua ponderatuz. Datuak 2005. urteari dagozkio, urte horri baitagokio hezkuntzako gastu pribatuari buruzko informazio xehatua. Iturria: A. de la Fuente eta Boscá (2011).

43. Grafikoa

Batez besteko hezkuntza urteak 2008an 25 urtez gorako biztanlerian (Espainia = 100)



Iturria: A. de la Fuente eta Boscá (2011)

9. Koadroa

**Jardun-adierazle globala,
kanpoko faktoreen inpaktua zuzenduta eta zuzendu gabe, eta faktoreon ekarpena**

	G3 araztua eta bireskalatua	gastuaren eragina	hezkuntzaren eragina 25+	G3 gordina
Andaluzia	100,0	-1,2	-1,3	97,5
Aragoi	102,7	-0,4	1,0	103,3
Asturias	102,6	1,4	0,5	104,5
Balearrak	93,7	0,7	0,0	94,5
Kanariak	96,4	0,1	-0,4	96,1
Kantabria	101,3	0,5	0,9	102,7
Gaztela eta Leon	102,5	1,2	-0,5	103,2
G.-Mantxa	100,8	0,1	-1,7	99,2
Katalunia	100,8	0,9	0,0	101,7
Valentzia	96,7	0,0	0,1	96,7
Extremadura	100,8	-0,1	-2,0	98,7
Galizia	102,8	0,2	-0,4	102,5
Madril	99,9	-0,6	3,3	102,5
Murtzia	101,4	-1,3	-1,2	98,9
Nafarroa	98,1	2,8	1,2	102,2
EAE	101,5	3,7	1,9	107,1
Errioxa	101,5	0,3	0,8	102,6
Espainia	100,0	0,0	0,0	100,0


Iturria: A. de la Fuente

D&G egileek ekonometriaren ikuspegitik balioesten dute helduen gastu- eta prestakuntza-mailek eskualdeko jardun gordinari egiten dioten ekarpena, eta emaitza horiek erabiltzen dituzte aldagai horien inpaktuaren adierazle araztuak eraikitzeko; horrela, aurreko atalean aurkeztutako adierazle gordinak baino irudi zehatzagoa ematen dute aldagai horiek eskualdeetako eskola-sistemen balio erantsiaz.

Jardun-adierazle gordin globala (G3) deskonposatuta adierazten du 9. koadroak, hiru faktoreen batura bidez: jardun-adierazle araztua, eta kanpoko aldagaien ekarpen estimatua. Koadroaren azterketak emaitza interesgarriak islatzen ditu. Esate baterako, Andaluzia estatuko batez bestekoan legoke, jardun-adierazle global araztuaren kasuan. Hala ere, bai berorren gastu-maila txikiak eta bai bertako helduen hezkuntza-maila txikiak emaitzei beherantz eragiten diete, eta, horren ondorioz, eskualdearen jardun-indize gordina estatuko batez bestekoa baino 2,5 puntu txikiagoa da. Bestaldeko muturrean, berriz, zera dugu: euskal hezkuntza-sistemaren inguruabar onuragarriek azaltzen dituzte eskualdea Espainiako batez bestekoaren gainetik kokarazten duten 7,1 puntuetatik 5,6. Kanpoko faktoreen eragina aintzat hartuta zuzendu ondoren, Euskal Autonomia Erkidegoa hezkuntza-jardunaren sailkapen globalean lehen tokitik bosgarrenera doa, Errioxarekin berdinduta eta Galiziaren, Aragoiren, Asturiasen eta Gaztela eta Leonen atzetik. 39. grafikoak jardun-adierazle globalaren balio gordinak eta araztuak konparatzen ditu, eskualdez eskualde. Diagonalaren eta eskualde bakoitzaren posizioa zehazten duen puntuaren arteko distantzia bertikalak aipatutako kanpo-faktoreen multzoaren eraginagatik jardun-adierazlean dagokion zuzenketa adierazten du, eta horren berri ematen da gezien bidez, hain zuzen, Andaluziaren eta EAEn kasuetan.

44. Grafikoa

Jardun-adierazle globala, gordina eta araztua



Iturria: A. de la Fuente

44. grafikoaren azterketak hauxe erakusten digu: oro har, estatuko ipar-mendebaldeko eskualdeek hezkuntza-eremua hobea dituzte hego-ekialdekoekin baino, eta uharteak eta Valentzia nabarmentzen dira jardun hori okerraren bete dutenen artean. Hala ere, kanpoko faktoreen ondorioz egin beharreko zuzenketak murriztu egiten du jardun-indizeen barriadura hori, eta ondorio deigarriak ere agerrarazten ditu zenbait kasutan. Lehen aipatu ditugunei, hots, Andaluziari eta Euskal Autonomia Erkidegoari, beste kasu batzuk erantsi beharko genizkieke, Murtzia, Extremadura eta Gaztela-Mantxa, zehazki, zuzenketarekin nabarmen hobetzen baitira; eta, aldiz, Asturiasen, Kantabrian, Madrilan eta, bereziki, Nafarroan, justu alderantzizkoa gertatzen da.

Azkenik, merezi du hau nabarmentzea: irizpideen araberrako jardun-indizeen arteko korrelazioek (ikus jatorrizko azterlana balioak zehatz-mehatz ezagutzeko) positiboak izaten jarraitzen dute, eskualdeetako hezkuntza-sistemak "kanpoko baldintza berdintsuetan" kokatzeko gastu-bolumena eta familien hezkuntza-maila kontrolatu ondoren ere. Eremua hori interesgarria da, korrelazio horiek negatiboak izango zirela espero baitzitekeen, eskualdeak modu eraginkorrean arituko zirela pentsatuta; izan ere, horrelako egoeretan, jardunaren dimentsioetako batean hobekuntzaren bat izateko, nahitaezkoa litzateke beste bat kaltetzea. Bide beretik, espero zitekeen hezkuntza-ziklo jakin batean biztanle gehieneko sarrera lukeen eskualdeak, gero, errepikatze- edo abandonu-tasa handiagoa izatea, edo eremua okerragoa izatea gaitasun-probetan, zailtasunak dituzten ikasleen kopuru handiagoa izango zukeenez. Modu bertsuan, esijentzia-maila handiagoak gaitasunen adierazlea hobetzeko joera edota abandonu- eta errepikatze-tasa handiagoak islatu beharko litzuke.

D&G egileen balioespeneak, ordea, erakutsi dute ez dela horrela gertatzen. Aitzitik, jende gehien eskolatzea lortzen duten eskualdeek, batez beste, errepikatze- eta abandonu-tasa txikiagoak dituzte, eta gaitasun-maila hobea, baita baliabideetan eta helduen hezkuntza-mailan dauden desberdintasunen eraginak kendutakoan ere. Eremua horrek iradokitzen du eskualde guztiak ez direla aritzen eraginkortasunaren mugan; beraz, horietako batzuetan, badago beste ezer kalte egin beharrik gabe jardunaren zenbait dimentsio hobetzeko tartea.

Nafarroako egoera

10. koadroak Nafarroako Foru Erkidegoaren egoera laburbiltzen du, 2008-2009 ikasturterako D&G egileek kalkulaturako adierazleen ikuspegitik. Atal nagusian, eremua gordinen oinarritzko adierazleak biltzen dira, jardun-irizpideen konbinazioetarako eta beharrezko informazioa eskaintzen duten hezkuntza-mailaetarako. Adierazle horiei, [4] zutabean, maila bakoitzerako prozesuko jardun-adierazle laburtua eta, [6] zutabean, prozesuko jardun-adierazle globala eta gaitasunena –halakorik eraiki daitezkeen mailetan– erantsi zaie. [7] zutabean adierazten den mailen araberrako sailkapena maila bakoitzerako eskuragarri dugun adierazle osoenean oinarritzen da, hau da, [6] zutabean, eta, halakorik ez dagoenean, [4] zutabean.

Koadroko azken bi lerroetan, jardunaren laburpen-adierazleak ageri dira, jardun-irizpideen arabera, eta horri dagokion sailkapena; eta baita jardun-adierazle globala, G3, eta berorri dagokion sailkapena ere, behealdeko eskuin ertzean beltzez adierazita. Laburpen-adierazle horietarako, indize bakoitzaren balio gordina (b) nahiz balio araztua (d) erakutsi dira, b/d formatuko barra batez berezita.

Nafarroako hezkuntza-jardunaren adierazle gordin gehienak estatuko batez bestekoak baino handixeagoak dira. Salbuespen nagusia Lanbide Heziketari dagokio, eta eskualde horretako jarduna batez bestekoaren azpitik dago nabarmenki, sarbide-maila txikien ondorioz funtsean, eta, nahiz eta erkidego horrek arlo horretan arrakasta-adierazle onak dituen, horrek ez du aurrekoa orekatzen. Jardunaren alorreko laburpen-adierazleei bagagozkio, , arazoak sarbide-tasetan biltzen dira, eta, bien bitartean, arrakastaren, iraupenaren eta gaitasunen adierazleak estatuko batez bestekoen gainetik daude. Oro har, jardun-adierazle globalari begiratuta, batez bestekoa baino 2,2 puntu gorago dago Nafarroa, eta, beraz, eskualdeen sailkapenean bederatzigarren lekuan dago.

10. Koadroa

Hezkuntza-jardunaren adierazleak, Nafarroa, 2008-2009 ikasturtea

	[1] sarbidea	[2] arrakasta	[3] iraupena	[4] prozes. laburp	[5] ezaguerak	[6] adierazle globala mailaka	[7] sailkap. mailaka
a. Lehen Hezk.	100.0	100.0	100.9	100.3	101.8	101.0	8
b. DBH	100.0	102.6	105.2	102.6	104.4	103.5	1-2
c. Batx.	104.8	103.0	105.3	104.4			5
d. LH 1	83.9	108.0	101.4	97.8			11
e. LH 2	84.2	104.8	99.9	96.3			12
f. Globala	99.7/89.1	102.6/100.8	102.4/99.5		102.8/100.6	102.2/98.1	
g. Irizpide-sail.	8//16	3/4	4/14		8/11	9/14	

Iturria: A. de la Fuente

Nafarroako hezkuntza-sistemaren jarduna balioesteko orduan, kontuan izan behar da foru-erkidego hori Espainiako bigarren eskualdea dela unibertitatez kanpoko ikasleen gastuari dagokionez, eta hirugarrena erdi-mailako hezkuntzari dagokionez. Aldeko kanpo-faktore horien araberrako zuzenketak beheranzko eragin erranguratsua du jardun-adierazleetan. Zuzenketa horren ondorioz, sarbide-indizeak hamar puntu baino gehiago galtzen ditu, eta gainerako adierazleak batez bestekoaren inguruan kokatzen dira, edo batez bestekoa baino apur bat beherago. Jardun-adierazle globalak lau puntu galtzen ditu, eta, horren ondorioz, Nafarroa estatuko batez bestekoaren azpitik gelditzen da, autonomia erkidegoen sailkapeneko 14. tokian.

5. Taulak

11. Koadroa

Nafarroako ekonomiaren koiuntura adierazle nagusiak

	2012		Batazbesteko hazkundera urte haseratik (u/u)		Azken datua (h/h, uez)		Azken hilabetea
	Nafarroa	Espainia	Nafarroa	Espainia	Nafarroa	Espainia	
%							
Txikizkako salmentak	-5,1%	-7,0%	-8,1%	-9,7%	-2,1%	-0,8%	feb-13
Matrikulazioak	-12,1%	-14,4%	1,5%	-6,4%	-2,2%	-0,7%	mar-13
ZSJI (IASS)	-5,1%	-6,0%	-1,9%	-4,6%	0,3%	-0,7%	ene-13
Bidaiari egoiliarrek (1)	-3,8%	-6,1%	-5,1%	-12,2%	-8,0%	-1,8%	feb-13
Egoiliarren ostatu-gauak (1)	-4,2%	-8,4%	-9,5%	-14,0%	-5,6%	-2,8%	feb-13
IPI	-8,3%	-5,9%	-2,4%	-6,0%	-0,2%	-0,5%	feb-13
Etxebizitza bisatuak	-34,1%	-43,6%	-96,0%	-31,4%	-81,1%	-2,6%	ene-13
Esportazio Errealak (2)	-17,1%	1,3%	-8,6%	5,2%	-3,3%	0,5%	ene-13
Inportazioak	0,9%	-3,7%	0,9%	5,7%	-3,6%	8,7%	ene-13
Bidaiari Atzerritarrek (3)	6,0%	1,5%	15,7%	-2,5%	-13,2%	-0,9%	feb-13
Atzerritarren Ostatu-gauak (3)	5,2%	2,3%	12,6%	-1,1%	-11,0%	-0,8%	feb-13
Afiliazioa SSn	-3,3%	-3,4%	-3,9%	-4,3%	-0,5%	-0,6%	mar-13
Langabezia Erregistratua	14,5%	10,9%	9,7%	7,1%	1,1%	-0,3%	mar-13

(1) Espainiako Egoiliarrek (2) Ondasun esportazioak (3) Espainiako egoiliarrek ez direnak
Iturria: BBVA Research eta Espainiako ministerizetan (SOIM, EOM eta ITMM) oinarrituta

12. Koadroa

EDB: aurreikuspen makroekonomikoak (Urteko bariazio-tasak %-tan, kontraktorik adierazi ezean)

	2010	2011	2012	2013	2014
BPG erreala	2,0	1,5	-0,5	0,3	1,3
Kontsumo pribatua	0,9	0,1	-1,3	-0,3	0,9
Kontsumo publikoa	0,7	-0,1	-0,3	-0,5	0,2
Kapital finkoaren eraketa gordina	-0,3	1,6	-3,9	-1,3	3,3
Eraikuntza	-4,4	-0,3	-3,1	-1,5	2,0
Izakinen aldaketa (hazkunderako ekarpena)	0,6	0,2	-0,6	0,0	0,0
Barne-eskaria (hazkunderari egindako ekarpena)	1,2	0,5	-2,2	-0,5	1,1
Esportazioak	11,0	6,5	2,9	3,3	3,8
Inportazioak	9,5	4,3	-0,8	1,8	3,8
Kanpo-eskaria (hazkunderari egindako ekarpena)	0,7	1,0	1,6	0,8	0,2
Pro-memoria					
BPG, etxebizitza arloko inbertsiorik gabe	2,2	1,5	-0,4	0,3	1,3
BPG, eraikuntza gabe	2,8	1,7	-0,1	0,4	1,3
Enplegua guztira (BAI/EPA)	-0,5	0,5	-0,7	-0,5	0,4
Langabezia-tasa (bizt. akt. %)	10,1	10,2	11,4	11,8	11,4
Kontu korrante saldoa (BPGren %)	0,0	0,1	1,1	1,3	1,4
Herri-administrazioen saldoa (BPGren %)	-6,2	-4,1	-3,0	-2,3	-1,8
KPI (aldiaren batez bestekoa)	1,6	2,7	2,5	1,6	1,5

Aurreikuspenen itxiera-data: 2013ko otsailak 8
Iturria: erakunde ofizialak eta BBVA Research

13. Koadroa

Aurreikuspen makroekonomikoak: Barne Produktu Gordina

(Urteko tasak, %)	2010	2011	2012	2013	2014
Estatu Batuak	2,4	1,8	2,2	1,8	2,3
EDB	2,0	1,5	-0,5	0,3	1,3
Alemania	4,0	3,1	0,9	1,0	2,0
Frantzia	1,6	1,7	0,0	0,4	1,5
Italia	1,8	0,6	-2,4	-0,7	0,9
Espainia	-0,3	0,4	-1,3	-1,1	1,1
Erresuma Batua	1,8	0,9	0,3	1,0	1,9
Latinoamerika*	6,2	4,3	2,8	3,5	3,7
Mexiko	5,4	3,9	3,9	3,1	3,1
Brasil	7,6	2,7	0,9	3,6	4,0
EAGLES **	8,4	6,6	5,1	5,8	6,1
Turkia	9,5	8,5	2,2	4,4	5,5
Asia Ozeano Barea	8,2	5,7	5,2	5,6	5,8
Txina	10,5	9,3	7,8	8,0	8,0
Asia (Txina gabe)	6,7	3,4	3,6	4,0	4,4
Mundua	5,1	3,9	3,2	3,6	4,1

* Argentina, Brasil, Txile, Kolonbia, Mexiko, Peru, Venezuela

** Brasil, Korea, Txina, India, Indonesia, Mexiko, Errusia, Taiwan, Turkia

Aurreikuspenen itxiera-data: 2013ko otsailak 8

Iturria: BBVA Research

14. Koadroa

Finantza aldagaiak

Interes-tasak 10 urtera (batez bestekoa)	2010	2011	2012	2013	2014
Estatu Batuak	0,25	0,25	0,25	0,25	0,25
EDB	1,00	1,00	0,75	0,75	1,25
Txina	5,81	6,56	5,75	6,00	6,00

Interes-tasak 10 urtera (batez bestekoa)

Estatu Batuak	3,2	2,8	1,8	2,0	2,6
EDB	2,8	2,6	1,6	2,0	2,9

Ganbio-tasa (batez bestekoa) Dolarrak (\$) moneta nazionaleko

Estatu Batuak (EUR USDko)	0,76	0,72	0,78	0,77	0,75
EDB	1,33	1,39	1,29	1,31	1,34
Erresuma Batua	1,55	1,60	1,59	1,52	1,53
Txina (RMB USDko)	6,77	6,46	6,31	6,16	6,02

Aurreikuspenen itxiera-data: 2013ko otsailak 11

Iturria: BBVA Research

LEGE-OHARRA

Dokumentu hau nahiz bertako datu, iritzi, estimazio, aurreikuspen eta gomendioak Banco Bilbao Vizcaya Argentaria, S.A.k (aurrerantzean "BBVA") egin ditu, bezeroei argitaratze-datako informazio orokorra emateko asmoz, eta aurretiko oharpenik gabe alda daitezke. BBVAk ez du inolako konpromisorik hartzen, ez aldaketa horien berri emateko, ezta dokumentu hau eguneratzeko ere.

Ez dokumentu hau, ez jasotzen duen edukia, ez dira inolaz ere eskaintza, gomendio edo erosketa-eskaera, ez eta inolako balore edo finantza-tresna harpidetzeko edo inbertsioak egin nahiz desegiteko bide ere, eta ezin dute ezain kontratu, konpromiso edo erabakiren oinarri izan.

Dokumentu hau eskura duten duen inbertsiogileak argi izan behar du bertan aipatzen diren balore, finantza-tresna edota inbertsioak desegokiak izan daitezkeela dituen inbertsio-helburu espezifikoetarako, duen finantza-egoerarako edo arrisku-profilerako, ez baitira kontuan hartu dokumentu hau prestatzerakoan; horren ondorioz, nor bere inbertsio-erabakiak hartu behar ditu, inguruabarrak kontuan izanda eta beharrezko lukeen aholkularitza zehatz eta espezializatua lortuta. Dokumentu honen edukia publikoki eskuragarri dauden informazioetan oinarritzen dira, eta fidagarritzat jotzen diren iturrietatik lortu dira; baina informaziook ez ditu BBVAk modu independentean egiaztatu, eta, hortaz, ez du inolako berme berariazko edo inpliziturik ematen berorien zehaztasun, osotasun edo zuzentasunaz. BBVAk ez du bere gain hartzen dokumentu hau edo berorren edukia erabiliz zuzenean edo zeharka gerta litekeen galerarik. Inbertsiogileak gogoan izan behar du balore eta finantza-tresnen iraganeko bilakaerak edo inbertsioen emaitza historikoek ez dutela bermatzen etorkizuneko bilakaerarik edo emaitzarik.

Balore eta finantza-tresnen prezioak edo inbertsioen emaitzak gorabeherak izan ditzake inbertsiogileen interesen aurka, hasierako inbertsioa galtzeraino. Geroko transakzioekin, aukerekin eta baloreekin edo errentagarritasun handiko finantza-tresnekin (high yield securities) egindako eragiketek arrisku handiak sor ditzakete, eta ez dira egokiak inbertsiogile guztientzat. Izan ere, zenbait inbertsiotan, galerak hasierako inbertsioa bera baino handiagoak izan daitezke, eta kasu horietan beharrezkoa da ekarpen gehigarriak egitea galera guztien estaltzeko. Horregatik, tresna horiekin eragiketarik egin aurretik, inbertsiogileek horien nondik norakoan jakitun izan behar dute, dagozkien funtzionamendu, eskubide, betebehar eta arriskuak zein horien azpiko baloreak kontuan hartuta. Gerta liteke bigarren mailako merkaturik ez izatea tresna horientzat.

BBVAk edo Grupo BBVA taldeko edozein erakundek nahiz horietako zuzendari edo langileek partaidetzaren bat izan dezakete dokumentuan aipatutako balore edo finantza-tresna horietan, zuzenean edo zeharka, edo horiekin zerikusia duten beste edozeinetan; balore edo tresna horien salerosketan jardun daitezke, euren edo hirugarrenen izenean, aholkularitza edo bestelako zerbitzuak eman diezazkiekete balore edo tresna horien jaulkitzaileei, horiekin zerikusia duten enpresei edo berorietako akziodun, zuzendari edo enplegatuei, eta interesak izan ditzakete edo ezain salerosketa burutu dezakete balore edo tresnokin, edo horiekin lotutako inbertsioak egin ditzakete, dokumentu hau argitaratu baino lehenago edo ondoren, indarrean den legeak baimentzen duen heinean.

Salmenta-saileko edo beste sail bateko enplegatuek, BBVAkoek nahiz Grupo BBVA taldeko beste erakunde batekoek, merkatu-iruzkinak egin ditzakete, ahoz zein idatziz, edo inbertsio-estrategiak zehaztu diezazkiekete bezeroei, dokumentu honetako iritzien kontra; hein berean, BBVAk edo Grupo BBVA taldeko ezain erakunde bere izenean inbertsio-erabakiak har ditzake, dokumentu honetako gomendioekin bateragarri ez izan arren. Dokumentu honetako ezain zati ezin da (i) edozein era, euskarri edo baliabide erabiliz koptatu, fotokoptatu edo bikoiztu, eta ezin da (ii) birbanatu edo (iii) aipatu, BBVAren aurretiazko baimen idatzirik gabe. Dokumentu honen zatirik ezingo da erreproduzitu, eraman edo bidali lekuan lekuko legeek debekatua duten herrialdeetara (eta ezingo zaie helarazi hango pertsoneri edo erakundeei). Murrizketa hauek ez betetzeak dagokion legedia haustea adieraz dezake.

Erresuma Batuan, dokumentu hau honako hauei banatuko zaie soilik: (i) legeak aurreikusitako inbertsioetan eskarmentu profesionala duten pertsoneri, betiere 2005eko aginduko (emendakinak barnean hartzen dituen inbertsioan, aurrerantzean "agindua") 2000. urteko finantza-zerbitzu eta -merkatuen legeak (finantza-sustapena) 19(5) artikuluan dioenaren arabera; edo (ii) ondare handiak dituzten erakundeei, betiere aginduaren 49(2) artikulua (a)tik (d)rako ataletan zehazten duenaren arabera; edo (iii) legeak inbertsio bat egiteko gomendio edo proposamena jaso dezaketen pertsoneri (2000ko finantza-zerbitzu eta -merkatuen legearen 21. artikulua adierazten duenaren arabera) (aurrerantzean, pertsona horiek guztiak "pertsona adierazgarri" izango dira). Dokumentu hau pertsona adierazgarrii soilik zuzentzen zaie, eta pertsona adierazgarri ez direnek ez lukete berau oinarri hartu behar, ez eta beronen arabera jokatu ere. Dokumentu honetan aipatzen diren inbertsioak edo inbertsio-jarduerak soilik pertsona adierazgarrientzat daude eskuragarri, eta pertsona adierazgarriekin soilik gauzatzeko dira.

Dokumentu honen ezain zati ezingo da erreproduzitu, eraman edo bidali Ameriketako Estatu Batuetara, ez eta hango norbanako edo erakundeei helarazi ere. Murrizketa hauek ez betetzeak Ameriketako Estatu Batuetako legedia haustea adieraz dezake.

Txosten hau egin du(t)en analista edo egile(ar)en ordainsari-sistema aldagai askoren arabera da, besteak beste BBVAk ekitaldi ekonomikoan lortutako diru-sarreraren arabera eta, zeharka, Grupo BBVA taldearen emaitzen arabera, inbertsio-bankuaren jarduerak eragindakoak barne hartuta, nahiz eta ez duten ordainik jasotzen inbertsio-bankuaren inongo eragiketa zehatzen arabera.

BBVA ez da FINRAko kide eta ez dago horientzat aurreikusitako agerrarazte-arauei lotuta.

"BBVA Grupo BBVA taldearen Balore Merkatuko jokaera-kodeari atxikita dago; kode horrek, besteak beste, gomendioen harira, interes-gatazkak saihestu eta eragozteko jokaera-arauek ditu, informazio-mugak barne. Grupo BBVA taldearen Balore Merkatuko jokaera-kodea ikusgai dago ondoko web-helbide honetan: www.bbva.com / Gobierno Corporativo".

BBVA, S.A. banku bat da, Espainiako Bankuak eta Balore Merkatuen Nazio Batzordeak (CNMV) gainbegiratua eta Espainiako Bankuaren erregistroan 0182 zenbakiarekin inskribatua.

Txosten hau Espainia eta Europako Unitateak prestatu du:*Ekonomia Garatuetarako ekonomialari burua*

Rafael Doménech
+34 91 537 36 72
r.domenech@bbva.com

Espainia
Miguel Cardoso
+34 91 374 39 61
miguel.cardoso@bbva.com

Anabel Arador
+34 93 401 40 42
ana.arador@grupobbva.com

Joseba Barandiaran
+34 94 487 67 39
joseba.barandia@bbva.com

Xavier Callol
+34 91 374 75 28
xavier.callol@bbva.com

Mónica Correa
+34 91 374 64 01
monica.correa@bbva.com

Juan Ramón García
+34 91 374 33 39
juanramon.gl@bbva.com

Félix Lores
+34 91 374 01 82
felix.lores@bbva.com

Antonio Marín
+34 648 600 596
antonio.marin.campos@bbva.com

Myriam Montañez
+34 954 24 74 86
miriam.montanez@bbva.com

Mercedes Nogal
+34 91 807 51 44
mmercedes.nogal@bbva.com

Virginia Pou
+34 91 537 77 23
virginia.pou@bbva.com

Juan Ruiz
+34 646 825 405
juan.ruiz2@bbva.com

Pep Ruiz
+34 91 537 55 67
ruiz.aguirre@bbva.com

Camilo Andrés Ulloa
+34 91 537 84 73
camiloandres.ulloa@bbva.com

BBVA Research*Taldeko Ekonomialari Burua*
Jorge Sicilia*Garatze bidean diren Ekonomiak:*

Alicia García-Herrero
alicia.garcia-herrero@bbva.com

Garatze bidean diren Ekonomien Zeharkako Analisia
Álvaro Ortiz Vidal-Abarca
alvaro.ortiz@bbva.com

Asia
Stephen Schwartz
stephen.schwartz@bbva.com.hk

Latam koordinazioa
Juan Ruiz
juan.ruiz@bbva.com

Argentina
Gloria Sorensen
gsorensen@bbva.com

Txile
Alejandro Puente
apuente@bbva.com

Kolonbia
Juana Téllez
juana.tellez@bbva.com

Peru
Hugo Perea
hperea@bbva.com

Venezuela
Oswaldo López
oswaldo_lopez@bbva.com

Mexiko
Carlos Serrano
carlos.serranoh@bbva.com

Analisi Makroa, Mexiko
Carlos Serrano
carlos.serranoh@bbva.com

Garatutako Ekonomiak:

Rafael Doménech
r.domenech@bbva.com

Espainia
Miguel Cardoso
miguel.cardoso@bbva.com

Europa
Miguel Jiménez
mjimenezg@bbva.com

Estatu Batuak
Nathaniel Karp
nathaniel.karp@bbvacompass.com

Arlo Globalak:

Inguru Ekonomikoak
Julián Cubero
juan.cubero@bbva.com

Finantza Inguruak
Sonsoles Castillo
s.castillo@bbva.com

Berrikuntza eta Prozesuak
Clara Barrabés
clara.barrabes@bbva.com

Finantza Sistemak eta Araudia:

Santiago Fernández de Lis
sfernandezdelis@grupobbva.com

Finantza Sistemak
Ana Rubio
arubiog@bbva.com

Pentsioak
David Tuesta
david.tuesta@bbva.com

Araudia eta Politika Publikoak
María Abascal
maria.abascal@bbva.com

Interesdunak, helbide honetara zuzendu:

BBVA Research
Paseo Castellana, 81 - 7 solairua
28046 Madrid (Espainia)
Tel.: +34 91 374 60 00 y +34 91 537 70 00
Fax: +34 91 374 30 25
bbvaresearch@bbva.com
www.bbvaresearch.com